


eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

**ZUZENBIDE GRADUA**  
**2022/2023 IKASTURTEA**  
**GRADU AMAIERAKO LANA**

Emakume errefuxiatuak eta mutilazio genitala: Europar  
Batasunaren eta Espainiaren babes sistemaren azterketa bat.

**Egilea:** JUNE BAYARRI TENA  
**Zuzendaria:** IKER ZIRION LANDALUZE

## **LABURPENA**

Lan honek gaur egun emakumeen genitalen mutilazioari (EGM) eta asiloari buruz dagoen legediaren aplikazioa aztertzen du, nazioarteko esparrutik Espainiako esparrura. Nazioarteko eta Europako legeak, Espainiako legerian nola txertatu diren aztertuko da. Era berean, EGMren egoera asiloaren testuinguruan jazarpen-modutzat har daitekeela sakonduko da, eta jurisprudenziaren bidez Espainiako auzitegiek EGMarekin lotutako asilo-eskaerei nola erantzun dieten aztertuko da ere. Gainera, Espainiako gobernuak EGM prebenitzeko eta borrokatzeko hartutako neurriak aztertuko dira, baita neurri horiek praktikan nola ezarri diren. Oro har, lanaren helburua emakumeen oinarrizko eskubideak babestearen eta haien segurtasuna bermatzearen garrantzia nabarmentzea da, zehazki EGMa bezalako praktika baten aurrean.

**Hitz-gakoak:** Errefuxiatuak, asiloa, emakumeen genitalen mutilazioa, Nazioarteko zuzenbidea, Europar Batasuna eta Espainia.

## **ABSTRACT**

This paper analyses the application of current legislation on female genital mutilation (FGM) and asylum, from the international level to Spain. The integration of international and European laws into Spanish law will be analyzed. It will also examine the situation of FGM as a form of harassment in the context of asylum, as well as the jurisprudential response of the Spanish courts to asylum applications related to FGM. In addition, the measures adopted by the Spanish government to prevent and combat FGM, as well as their practical implementation, will be analysed. In general, the aim of the work is to highlight the importance of protecting the fundamental rights of women and ensuring their security, particularly in the face of a practice such as FGM.

**Keywords:** Refugees, Asylum, Female Genital Mutilation, International Law, European Union and Spain.

<b>1. Sarrera</b>	3
<b>2. Errefuxiatuaren kontzeptua</b>	5
2.1. Errefuxiatuaren definizioa eta nazioarteko legeria	5
2.2. Europar Batasuneko legeria	6
2.2.1. Asilorako Europako Sistema Bateratua	8
2.2.2. Europar Batasunaren eta estatu kideen artean dagoen eskumen-banaketa: asilo-eskubidea eta errefuxiatuen eskubidea	10
2.3. Espainiako legeria	12
<b>3. Emakumeen genitalen mutilazioa</b>	13
3.1. Definizioa eta fenomenoak	13
3.2. Nazioarteko legeria	14
3.3. Europar Batasuneko legeria	16
3.4. Espainiako Legeria	18
<b>4. Asiloa eta emakumeen genitalen mutilazioa Espainian</b>	21
4.1. Asilo prozeduraren azterketa	22
4.2. Espainiako jurisprudentzia	23
<b>5. Ondorioak</b>	28
<b>6. Bibliografia</b>	31
6.1. Doktrina	31
6.2. Nazioarteko arau konbentzionalak eta instituzionalak	33
6.3. Bestelako dokumentuak	35

## 1. Sarrera

Emakumeen genitalen mutilazioa munduko hainbat komunitatetan errotutako praktika kultural bat da, eta gero eta kezka handiagoa sortu du giza eskubideei eta emakumeen ongizateari dagokienez. Beraz, nazioarteko arreta ere irabazi egin du. Genero-indarkeria mota honek, emakumeen genitalen mutilazioa emakumeen zirkunzisia ere esaten zaiona, emakumeen kanpo-genitalak partzialki edo erabat ezabatzea dakar, justifikagarria den arrazoi medikorik gabe<sup>1</sup>. Praktika mingarria, traumatikoa eta biktimen osasun fisiko eta psikologikoan ondorio larriak dituena da. Giza eskubideen aldeko hainbat erakunde, aktibistek eta gobernuk lan nekaezina egin dute praktika horri heltzeko eta erabat desagerrarazteko.

Hala ere, nazioarteko komunitateak ahalegin handiak egin baditu ere, emakume eta neska askok beren jatorrizko herrialdeetan genitalen mutilazioa jasateko mehatxuari aurre egin behar diote oraindik. Kasu askotan, beraien jatorrizko herrialdeetatik ihes egin behar izaten dute nazioarteko babesaren bila, biktima gisa edo praktikaren biktima potentzial gisa<sup>2</sup>. Horren ondorioz, indarkeria-mota horretatik ihes egiten duten eta beste herrialde batzuetan asiloa bilatzen duten emakumeak errefuxiatuen estatusarenpean babestu beharko liratekeen eztabaida piztu egin da. Asiloak, nazioartean aitortutako oinarrizko eskubide gisa, babesa ematen die beren jatorrizko herrialdeetan giza eskubideen jazarpen eta urraketa larrietatik ihes egiten duten pertsoneri. Emakumeen genitalen mutilazioaren kasuan, funtsezko galdera da ea praktika hori jazarpen-modu bat den, pairatzen duten edo jasateko arriskua duten emakumeei asiloa ematea justifikatzen duena.

Lan honetan, emakumeen genitalen mutilazioaren eta asiloa-eskubidearen arteko harremana aztertuko dugu, gai horrekin lotutako lege-inplikazioak aztertuz eta asiloaren bidez praktika horren biktimei babesa eta laguntza ematearen garrantzia nabarmenduz. Horretarako, nazioarteko esparru juridiko garrantzitsuak eta aurrekari legalak aztertuko ditugu. Halaber, genitalen mutilazioaren mehatxuaren ondorioz asiloa bilatzen duten emakumeei babes egokia emateko erronkak eta perspektibak jorratuko ditugu. Espainiako testuinguru espezifikoa, EGMari zein asiloari buruzko lege-esparrua zehaztuko dugu, eta emakume/neska

---

<sup>1</sup> UNICEF. (2020). *Mutilación genital femenina. La mutilación genital femenina constituye una violación de los derechos humanos reconocida internacionalmente.*

<sup>2</sup> Godinho Marques, Marta. (2014). *La mutilación genital femenina y derecho de asilo.* Trabajo de Fin de Grado, Universidad de Barcelona.

mehatxatuen eskubideak babesteko duen eraginkortasuna ebaluatuko dugu jurisprudentziaren bidez.

Lan honen xedea sistema komunitario honen gabezia nabariak zehaztea eta aztertzea da. Hori lortzeko akats sistemikoak zeintzuk diren argituko ditugu, eta Europar Batasunaren (aurrerantzean, EB) eta estatu kideek asilo eta emakumeen genitalen mutilazioaren aurrean daukaten erantzukizuna eta eraginkortasuna zehaztuko dugu ere. Horrez gain, nazioarteko arau-esparrua (legeen garapena, indarrean dagoen legeria eta erreforma-proposamenak) aztertuko ditugu, EBren zuzentarau eta erregelamenduen multzoarekin batera.

Lanean zehar, hainbat kontuei aztertzea gustatuko litzaiguke, hain zuzen:

- Errefuxiatuei buruzko 1951ko Genevako Konbentzioan seigarren arrazoi bat sartu behar den aztertzea, generoa.
- Espainiako araudian eta prozeduran genero-ikuspegia txertatzea lagungarria izango litzatekeen aztertzea, batez ere EGMren biktima diren edo izateko arriskuan dauden emakumeei asiloa errazteko.
- EGMren biktima den edo izan daitekeen emakume batek Espainian asilo eskubidea aitortzeko izan ditzakeen oztopoak identifikatzea eta konponbideak proposatzea.

Egiturari dagokionez honakoa izango da; lehenik eta behin, errefuxiatuaren kontzeptua aztertuko dugu eta gero asiloarekin duen desberdintasunak ere. Horretarako, zuzenbidearen iturri guztiak aztertuko ditugu orokorrenetik berariazkoenera, hau da, nazioarteko legeetatik Espainiako lege nazionaletara eta horien jurisprudentzia. Bigarrenik, emakumeen genitalen mutilazioaren kontzeptua eta fenomenoaz aztertuko dugu. Atal honetan, lehen aipatu ditugun zuzenbidearen iturri berberak hartuko dira kontuan. Eta hirugarrenik, asiloari eta EGMri buruz lanean zehar jorrotutako legeri guztia Espainiako sistemaren barruan nola aplikatzen den azalduko dugu.

Erabilitako metodologiari dagokionez, lana azterketa sistematikoaren emaitza bat da arau-multzoen azterketaren ondorioz eginda dagoelako. Batez ere nazioarteko legeriaren

(1951ko Genevako Konbentzioa<sup>3</sup>), Europar Batasunekoa (2011/95/EB Zuzentaraua<sup>4</sup>) eta legeria nazionalaren (12/2009 Legea<sup>5</sup>) araudi aplikagarriaren azterketa da; beraz, teknika metodologiko-deduktiboa aplikatu dugu, bereziki erabilgarria arauen azterketa kritikoan. Horri jurisprudentzia-azterketa gehitu behar zaio, funtsezkoa baita arauen aplikazio praktikoa ulertzeko. Ikerketa hori osatzeko, iturri akademiko garrantzitsuenak aztertu dira.

## 2. Errefuxiatuaren kontzeptua

### 2.1. Errefuxiatuaren definizioa eta nazioarteko legeria

Errefuxiatuek jasotzen duten nazioarteko babesak gero eta garrantzi handiagoa hartu du, batez ere, 1950ean Nazio Batuen Errefuxiatuentzako Goi Komisarioa (ACNUR, gaztelerazko siglak) sortu zenetik eta 1951eko Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Genevako Konbentzioa (aurrerantzean GK) onartu zenetik.

Lehenik eta behin, eta errefuxiatuei buruzko legeak aztertzen hasi aurretik, komenigarria da errefuxiatu kontzeptua definitzea. Errefuxiatuaren arloan giltzarri da Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Genevako Hitzarmena eta bertan horrela definitzen 1.A.2. artikuluan: *“errefuxiatutzat jotzen da bere arrazagatik, erlijioagatik, nazionalitateagatik, gizarte-talde jakin batekoa izateagatik edo iritzi politikoengatik jazarpena pairatzeko beldur izateko arrazoiak dituen pertsona oro, bere nazionalitateari dagokion herrialdetik kanpo dagoena, eta beldur hori dela eta herrialde horren babesa izan ez dezakeena edo izan nahi ez duena*<sup>6</sup>”.

Hitzarmen hori eta 1967an errefuxiatuen Estatutuari buruzko Protokoloa sinatu zuten estatuek betebeharra dute beren lurraldera asilo eske iristen diren pertsonak artatzeko eta babesteko. Aipatu berri dugun Protokoloa New Yorken egin zen 1967an, eta 1951ko Genevako Hitzarmenaren osagarria da. Protokolo horren bidez, pertsona errefuxiatuaren definizioa

---

<sup>3</sup> Genevan (Suitza) onartua, 1951ko uztailaren 28an, Errefuxiatuen eta Aberrigabeen Estatutuari buruzko Ahalguztidunen Biltzarrak (Nazio Batuak) emana, Batzar Nagusiak deituta, 429 (V) Ebazpenean, 1950eko abenduaren 14an. Indarrean sartu: 1954ko apirilaren 22an, 43. artikulua araberan. Nazio Batuen Tratatuaren Bilduma, 2545 zk; 189. liburukia. Aurrerantzean, 1951ko Genevako Konbentzioa.

<sup>4</sup> Kontseiluaren 2011/95/EB Zuzentaraua, 2011ko abenduaren 13koa, hirugarren herrialdeetako herritarrak edo aberrigabeak nazioarteko babesaren onuradun gisa aitortzeko baldintzei, errefuxiatuentzako edo babes subsidiarioarako eskubidea duten pertsonentzako estatutu uniformeari eta emandako babesaren edukiari buruzko arauak ezartzen dituena. Aurrerantzean, Kontseiluaren 2011/95/EB Zuzentaraua.

<sup>5</sup> 12/2009 Legea, urriaren 30ekoa, asilo-eskubidea eta babes subsidiarioa arautzen dituena. Aurrerantzean, 12/2009 Legea.

<sup>6</sup> Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Genevako Hitzarmena. 1951ko uztailaren 28an (1.A.2. Artikulua).

unibertsal bihurtu zen, eta Hitzarmenean jasotako denbora- eta geografia-murrizketa ezabatu ziren.

Pertsona errefuxiatuak babesteko konpromisoa hartu zuten estatuek egindako asilo-eskaeren interpretazioan ez da aintzatesten genero-arrazoiengatik jazarpena pairatzen duten pertsonen giza eskubideen urraketak. Egoera horretan dauden pertsona gehienak emakumeak direnez, esan dezakegu emakume askok pairatzen duten babes eza 1950ko Genevako Hitzarmena hitzez hitz interpretatua izanaren ondorio dela. Beraz, hori da lan honetan zehar aztertuko dugun puntuetako bat.

Nazio Batuen esparruan, genero-arrazoiengatik jazarpena 1980ko hamarkadan hasi zen lantzen, zehazki hamarkadaren lehenengo zatian, emakumeen giza eskubideen aldeko mugimenduak ugartu zirenean. Izan ere, hamarkada horretan hasi zen “errefuxiatuen esperientziaren feminizazioaz”<sup>7</sup> hitz egiten.

Bestalde, gai horren inguruan ACNURek, lanean ari da pertsona guztiek asiloa eskatzeko eskubidea dutela bermatzeko eta babesa aurkitzeko, beren herrialdean indarkeriatik, gerretatik eta jazarpenetatik ihes egin ondoren. Agentzia honek, laurogeiko hamarkadaren erdialdeaz geroztik, estatuei gomendatzen die kontuan hartzea zenbait kontu, besteak beste, emakumeek errefuxiatu izaera zehazteko prozeduretan duten esperientzia; estatuek interpretazio-jarraibideak eman ditzatela prozesu horietan genero-ikuspegia txertatzeko; eta Genevako Konbentzioa genero-sentsibilitatearekin interpretatzea edo, bestela, aitor dezatela generoagatik jazarpena legedi nazionalen barruan<sup>8</sup>.

---

<sup>7</sup> Miguel Juan, Carmen (2008). *La mutilación genital femenina, derecho de asilo en España y otras formas de protección internacional*.

<sup>8</sup> 1985ean, ACNUReko Batzorde Betearazleak Emakume Errefuxiatuei eta Nazioarteko Babesari buruzko lehen ondorioa onartu zuen, hain zuzen, 39. Ondorioa. Bertan, Estatuek, beren subiranotasuna baliatuz, interpretazio hori egiteko askatasuna zutela aitortu zuen: bizi ziren gizarteko gizarte-ohiturak urratzeagatik tratu krudel eta ankerrei aurre egin behar dieten asilo-emakumeak gizarte-talde jakin gisa har zitezkeen, Errefuxiatuen Estatutuari buruzko 1951ko Genevako Konbentzioaren 1. artikuluko A ataleko 2. paragrafoan xedatutakoaren arabera.

## 2.2. Europar Batasuneko legeria

1999.urtean, Europar Erkidegoen esparruan, Amsterdameko Ituna indarrean jartzearen ondorioz, asilo-politika, pertsonen zirkulazio askea, immigrazioa eta estatuetako mugak erantzukizun komunitarioko gaiak bihurtu ziren<sup>9</sup>.

Gaur egun, 2009ko Lisboako Tratatuen ostean, Europar Batasunaren Tratatua eta Europar Batasuneko Funtzionamenduari buruzko Tratuak dira oinarri juridiko garrantzitsuak. Hortik abiatuta, onartutako arau, prozedura eta epe komunen sorta bat dago asilo-eskaerak kudeatzeko. Haien artean, batez ere, Europar Batasuneko asilo-politikaren Erregelamenduren sare konplexuaren barruan xehetasunez barneratu gabe, pertsona bat errefuxiatu gisa aitortzeko irizpideak zeintzuk diren eta babesaren arloan zein beste aukera dauden ulertzeko funtsezko tresnei helduko diegu.

Alde batetik, Stockholmeko Programak, 2010-2014 aldirako, Europar Batasunaren helburuak ezarri zituen askatasuna, segurtasuna eta justizia arloetarako. Programa horrek askatasun-, segurtasun- eta justizia-eremua indartzeko nahia aldarrikatu zuen, eta, testuinguru horretan, migrazioaren eta asiloaren arloan EBren lehentasunak zehaztu zituen<sup>10</sup>. Zehazki, nazioarteko babesari dagokionez, 2012rako Europar Batasuneko lurralde osorako prozedura komun bat eta babes- eta elkartasun-gune bat ezartzea zen haren helburu nagusia, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuen 78. artikuluan ezarritakoaren ildotik.

Bestalde, Europar Batasunaren asilo-politika arautzen duten erregelamendu nagusia dugu, hain zuzen Dublin III Erregelamendua ezagututakoa<sup>11</sup>. Dublin III Erregelamendua asilo-eskaera bat aztertzeke ardua zein estatu kidek duen zehazteke arauak ezartzen ditu eta asiloa eskatzeko prozedurak eta aplikazio-epeak ezartzen ditu ere, bai eta eskatzailearentzat eskuragarri dauden legezko baliabideak ere. Oro har, erregelamendu horrek Europar Batasunaren asilo-politikaren kalitatea eta koherentzia bermatzen du.

---

<sup>9</sup> Mariño Menendez, Fernando.M. (2012). *El Derecho Internacional y europeo y la protección de los refugiados, Tratado de Extranjería*. En: PALOMAR OLMEDA, Alberto (coord.). *Grandes Tratados: Tratado de Extranjería*. 5.ed. Pamplona: Aranzadi.

<sup>10</sup> Kontseilu Europarra (2010), Stockholmeko Programa “Europa irekia eta segurua, herritarra zerbitzatu eta babestuko duena”.

<sup>11</sup> 604/2013 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2013ko ekainaren 26koa.



Arestian aztertu dugun moduan, nazioarteko esparruan errefuxiatu izaera 1951ko Genevako Konbentzioak arautzen du. EBren esparruan, bestalde, 2011ko Aintzatespen Zuzentarauak<sup>12</sup> nazioarteko Konbentzioan zehazten ez diren elementu batzuk zehazten ditu, hala nola jazarpen-egintzat<sup>13</sup> zer ulertzen den edota beste gai batzuen definizioa ere egiten ditu. Hala ere, orain gehien interesatzen zaiguna hau da: Genevako Konbentzioan zentzu hertsian errefuxiatutzat hartu ez diren pertsonen egoera ezagutzea, batez ere, mutilazio genitala jasan duten edota jasateko arriskuan dauden emakumeen egoera.

Izan ere, Europar Batasunak urteetan zehar lege-tresna batzuk ezarri ditu Asilorako Europako Sistema Bateratua ezartzeko (SECA siglak duena, gaztelaniaz eta, aurrerago aztertuko duguna), hau da, nazioarteko babes-sistemarekin lotutako legeria, harrera-baldintzak eta beste alderdi batzuk harmonizatzeko nahian. Harmonizazio-prozesu horrek asilo-sistemak homogeneousatzea ekarri beharko luke, eta tratu duina eman beharko lieke nazioarteko babesari eskatzen duten pertsonari eta errefuxiatuei<sup>14</sup>. Gainera, asilo-espeditenteen ebazpenak giza eskubideen arloko nazioarteko eta Europako estandarrak bete beharko lituzke, asiloari eta errefuxioari buruzko legeriaren arabera.

Azpimarratzekoa da asilo-sistema nazionaletan dauden desadostasunak ezabatzeko ahaleginak, orain arte alferrikakoak izan direnak, ez direla berriak. EBko herrialdeetako asilo-sistema nazionalen arteko desberdintasunak jarraitzen dira, eta, horren ondorioz, errefuxiatuek tratamendu desberdina jasotzen dute eskaera aurkezten duten estatuaren arabera. Nahiz eta 2013an SECArantz hurbiltzeko aurrerapen handia egin arauen zerrenda onartu zenean, nazioarteko babesari buruzko batasunaren legeria ez da EBean modu koherentean aplikatu.

---

<sup>12</sup> 2011/95/EB Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena 2011ko abenduaren 13koa, hirugarren herrialdeetako herritarrek edo aberrigabeak nazioarteko babesaren onuradun gisa aitortzeko baldintzei, errefuxiatuentzako edo babes subsidiariorako eskubidea duten pertsonentzako estatutu uniformeari eta emandako babesaren edukiari buruzko arauak ezartzen dituena.

<sup>13</sup> 9. artikulua. “*Jazarpen-egintzak 1. Jazarpen-egintzat hartzeko, Genevako Konbentzioaren 1. artikuluko A atalaren zentzuan, egintzak: a) behar bezain larriak izan behar dira, beren izaera edo izaera errepikatuagatik, oinarritzko giza eskubideen urraketa larria izan dadin, edo b) hainbat neurriren metaketa izan behar da, giza eskubideen urraketak barne, pertsona bati antzerako eragina izateko bezain astuna*”.

<sup>14</sup> Errefuxiatuei Laguntzeko Espainiako Batzordea (CEAR, gaztelera). “*Asilo-sistema nazionalen arteko desberdintasunak ezabatzeko ahaleginak ez dira berriak. 1999az geroztik, Europar Batasunak hainbat lege-tresna ezarri ditu Asilorako Europako Sistema Bateratua (SECA) ezartzeko, legeria, harrera-baldintzak eta nazioarteko babes-sistemari lotutako beste alderdi batzuk harmonizatzeko. Harmonizazio-prozesu horrek asilo-sistemak homogeneousatzea ekarri beharko luke, eta tratu duina eman beharko lieke nazioarteko babesari eskatzen duten pertsonari eta errefuxiatuei. Gainera, asilo-espeditenteen ebazpenak giza eskubideen eta asiloaren arloko nazioarteko eta Europako estandarrak bete beharko lituzke*”.

### 2.2.1. Asilorako Europako Sistema Bateratua

SECA ulertzeko, lehenik eta behin, bere helburua eta lege tresna horretara ailegatzeko eman diren aurrera pausuak aztertuko ditugu. Alde batetik, SECA arau-multzo bat da, non gutxieneko estandarrak ezartzen diren Europar Batasuneko estatu kideetan asilo-eskatzaileri eta errefuxiatuei buruzko harrerari, prozedurari eta beste alderdi batzuei buruz<sup>15</sup>.

Beste aldetik, lehenago hitz egindako 1999ko Amsterdamgo ituna berreskuratuko dugu, horrek eman baitzizkien Europar Batasuneko instituzioei asiloaren arloko legeria egiteko eskumen berriak, instituzio-mekanismo berezi baten bidez<sup>16</sup>. Tampereko Programa<sup>17</sup> onartu zenean, 1999ko urrian, Europar Kontseiluak erabaki zuen Asiloaren Europako Sistema Erkidea bi fasetan aplikatu behar zela: lehenik eta behin, epe laburrera, gutxieneko arau komunak onartzeko; bestetik, epe luzera, prozedura erkidea eta estatutu uniformeak ezartzeko EB osoan baliozko asiloa ematen zaien pertsonentzat.

Aipatutako guztiaren ondorioa izan zen SECAREN “lehen fasea”, 1999-2004 aldian, asilo-eskaerak aztertzeko ardura duen estatu kidea zehazteko irizpideak eta mekanismoak ezarri zituen. Era berean, asilo-eskatzaileren harrerari, nazioarteko babeserako baldintzei eta emandako babesaren izaerari eta errefuxiatu izaera emateko edo kentzeko prozedurei dagokienez, estatu kideek errespetatu behar zituzten gutxieneko arau komunak ere ezarri zituen.

Bestalde, 2004ko azaroan, Hagako Programak eskatu zuen 2010. urtea amaitu baino lehen “bigarren faseko” tresnak eta neurriak onartzea. Horrekin, agerian geratu zen Batasunak gutxieneko arauetatik haratago joan nahi zuela, eta asilo-prozedura bakarra ezarri nahi zuela, berme komunak eta estatutu uniformeak jasoko zituen babesaren eskeintzen zituzten pertsonentzako. 2010. urtea baino lehen Batzordeak hurrengo faseari buruzko proposamenak aurkeztu bazituen ere, negoziazioetako aurrerapenak motelak izan ziren, eta, beraz, SECAREN “bigarren fase” hori Lisboako Tratatuaren indarrean sartu zenean onartu zen, eta horrek

---

<sup>15</sup> Europar Kontseilua 2022ko abenduaren 5ean.

<sup>16</sup> Mekanismo berezi hori, bost urteko aldi iragankorra dena, Batzordearen eta estatu kideen artean ekimen-eskubide partekatua izango du, eta Kontseiluak aho batez erabakiko du, Parlamentuari kontsulta egin ondoren; Justizia Auzitegiak ere eskumena izango du gai jakin batzuei arduratzeko.

<sup>17</sup> 1999ko urrian, Kontseilu Europarra, Amsterdamgo Tratatuaren ezarritakoari jarraiki, Tamperen bildu zen, askatasun-, segurtasun eta justizia- esparru komunaren sorreran aurrera egiteko.

gutxieneko arau batzuetatik babes-estatutu uniformean oinarritutako asilo-prozedura erkide batera aldatu egin zuen arreta gunea.

2010. urteaz geroztik, EBak asilo-sistema erkide bat garatzeko eta ezartzeko lanean aritu da. Asilo-prozedurak harmonizatzeko, Asilorako Europako Bulegoa sortzeko eta asiloaren arloko erantzukizuna estatu kideen artean modu ekitatiboan banatzeko helburuarekin. Urte horietan, hainbat zuzentarau eta erabaki hartu dira SECArekin lotuta, asilo-prozedura komunei buruzko 2013/32/EB Zuzentaraua<sup>18</sup>; eta asilo-eskatzaileak hartzeko baldintzei buruzko 2013/33/EB Zuzentaraua<sup>19</sup>. Estatu kide bakoitzak bere lege- eta erregulazio-esparruaren arabera aplikatu ditu neurri horiek, eta horrek desberdintasunak eragin ditu herrialde bakoitzeko asilo-prozesua kudeatzeko moduan, aurrerago Espainiako kasua aztertuko dugu.

Kronologia jarraituz, 2016ko apirilaren 6an, Europako Batzordeak iragarri zuen SECA erreformatzeko prozesua hasi zela, sistema bidezkoagoa, efizienteagoa eta iraunkorragoa sortzeko. 2016ko maiatzaren 4an hasi zen erreformaren fase nagusia (Dublin Erregelamendua<sup>20</sup>, EURODAC<sup>21</sup> eta Asilorako Europako Agentzia), eta 2016ko uztailaren 13an Europako Batzordeak bigarren fasea (Prozedura, Kualifikazio eta Harrera Zuzentarauak) osatzea erabaki zuen<sup>22</sup>.

Amaitzeko, momentu honetan indarrean dagoen erregelamenduari buruz hitz egingo dugu, hau; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/2303 (EB) Erregelamendua da. 2021eko abenduaren 15ekoa, Europar Batasuneko Asilo Agentziari buruzkoa eta 439/2010 (EB) Erregelamendua indargabetzen duena. Erregelamendu horrek Europar Batasuneko Asilo Agentzia bat sortzen du, aurreko erreforman ideia bat zena, Asiloari Laguntzeko Europako Bulegoa (EASO, ingeleseko siglak) ordezkatu eta haren ondorengoa izango dena, estatu kideetan asiloaren arloan Batasuneko Zuzenbidea modu eraginkor eta uniformean aplikatzen

---

<sup>18</sup> 2013/32/EB Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2013ko ekainaren 26koa, nazioarteko babes emateko edo kentzeko prozedura komunei buruzkoa.

<sup>19</sup> 2013/33/EB Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2013ko ekainaren 26koa, nazioarteko babes eskatzen dutenei harrera egiteko arauak onartzen dituena.

<sup>20</sup> 604/2013 (EB) Erregelamendua da, nazioarteko babes-eskaera bat aztertzeko ardura duen estatu kidea zehazteko irizpideak eta mekanismoak ezartzen dituena.

<sup>21</sup> 2000. urtean sortutako sistema hobetzea du helburu, Europako datu-base bat antolatzeko eta erabiltzeko. Datu-base horretan erregistratuta daude nazioarteko babes eskatzen dutenen eta egoera irregularrean dauden hainbat migratzaile-kategorien hatz-markak. Sistema honen helburua Dublingo Erregelamenduaren aplikazioa erraztea da, nazioarteko babesaren eskatzaile baten EBko lehen sarrera-puntua zein estatu kide izan den zehazteko aukera ematen baitu.

<sup>22</sup> Errefuxiatuei Laguntzeko Espainiako Batzordea (CEAR, gaztelaniazko siglak). (2017). *Hacia dónde va el nuevo sistema europeo común de asilo: Retos, amenazas y propuestas*.

dela bermatzeko eta oinarrizko eskubideak erabat errespetatu daitezkeen. Agentziak estatu kideen jarduerak erraztu eta babestuko ditu SECAREN aplikazioan, Batasun osoan nazioarteko babeserako eskaeren ebaluazioan konbergentzia erraztuz eta lankidetzaren praktikoa eta informazio-trukea koordinatuz eta indartuz<sup>23</sup>.

### **2.2.2. Europar Batasunaren eta estatu kideen artean dagoen eskumen-banaketa: asilo-eskubidea eta errefuxiatuen eskubidea**

Europar Batasunaren eta estatu kideen artean eskumenak antolatzeko printzipioa atribuzio-printzipioa da. Printzipio hori Europar Batasunaren Tratatuaren 5.2 artikulutik ondorioztatzen da<sup>24</sup>, Europar Batasunaren Zuzenbidearen interpretazio-printzipioaren balioa baitu; izan ere, atribuzio-printzipioa Erkidegoak sortu zirenetik arautzen dira.

Tratatuak eskumen eskusiboak, eskumen partekatutakoak eta osagarritzko eskumenak esleitzen dizkiete Batasuneko instituzioei. Kasu honetan, eta asilo-eskubideari dagokionez, partekatutako eskumenen eremuan kokatu behar gara, hau da, Europar Batasunari zenbait ahalmen esleitzen zaizkio, eta ahalmen horiek estatu kideek gordetzen dituzten eskumenekin uztartu behar dira, subsidiariorik printzipioa tarte. Gaur egun, azpimarratzekoa da Batasunaren instituzioek eskumen garrantzitsuak dituztela arlo horretan, nahiz eta estatu kideen politika nazionalak funtsezkoa izaten jarraitzen duten.

Ziur aski estatuen eskumenak denborarekin indarra galduko dutela arlo horretan, Batasunaren integrazio politikorako loturak indartzen diren heinean. Bitartean, Batasunaren protagonismoa sistema nazionalak koordinatzean eta, hala badagokio, harmonizatzeko ohiko neurriak hartzean datza. Hala ere, eta lehen esan dugun bezala, oraindik asko geratzen da estatuen arteko desberdintasunak desagertzeko eta benetazko prozesu harmonizatua sortzeko. Modu sinpleagoan esanda: kontuan izan behar dugu asilo-eskubidea, pertsonaren eskubide subjektiboa baino gehiago, pertsona jakin bati ematen dion estatuaren eskubidea dela.

Hori esanda, argi izan behar dugu zer alde dagoen asilo-eskubidearen eta errefuxiatuen eskubidearen artean. Asiloa jazarpen politikoa kausa bakartzat onartzera mugatu bada ere,

---

<sup>23</sup> Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/2303 (EB) Erregelamendua da. 2021eko abenduaren 15ekoa, Europar Batasuneko Asilo Agentziari buruzkoa eta 439/2010 (EB) Erregelamendua indargabetzen duena.

<sup>24</sup> Honela dio 5.2. artikulua: “*Batasunak, esleipen-printzipioaren indarrez, estatu kideek tratatuetan ematen dizkieten eskumenen mugen barruan jarduten du, tratatuak zehazten dituzten helburuak lortzeko. Tratatuaren Batasunari esleitzen ez zaizkion eskumen guztiak estatu kideei dagozkie*”.

errefuxiatuen eskubideak hainbat arrazoi onartzen ditu, hala nola arraza, erlijioa, nazionalitatea, talde sozial jakin bateko kide izatea edo iritzi politikoak<sup>25</sup>. Hala eta guztiz ere, asiloak eta errefuxioak helburu bera dute, hau da, bere jatorrizko herrialdean jazartitako pertsona bat babestea. Hobeto esanda, asilo-egoera lortu nahi duenak aldeztu aurretik errefuxiatu-izaera izan behar du; izan ere, errefuxiatua izaera duen pertsonak ez du asilo-kalitatea biltzen, asilo-kalitatea baino lehenagoko kalifikazio gisa baino ez delako. Beste bereizketa nabarmen bat bi kontzeptuen estatutu juridikoa da. Asiloaren estatutu juridikoa Estatuan oinarritzen den botere legegilean oinarritzen da, eta diskrezionalitatea du asiloaren babesa eta iraunkortasuna emateko. Aitzitik, errefuxiatuaren estatutu juridikoaren arabera, babeslekua eskatzen duen atzerritarra ez da kanporatzen edo itzultzen bere bizitza edo askatasuna arrisku larrian dauden estatuetera. Aldi baterako aterpea eta tratu duina ematen die, eta, horregatik, iraupena mugatua da herrialdean babesa eskatzea eragin zuten arrazoiak irauten duten bitartean, eta behin horiek amaituta, aberriratzea edo birfinkatzea gertatzen da.

### **2.3. Espainiako legeria**

Nazioarteko eta Europako esparruan aplikatu beharreko lege-esparrua aztertu ondoren, komenigarria iruditzen zaigu errefuxiatuen eta asiloaren gaiari buruzko Espainiako legeria aztertzea, eta asilo-eskaerei buruz erabakitzekeo eskumena duten organo administratibo eta judizialek nola interpretatu eta aplikatzen duten ikustea.

Legeari dagokionez, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan, hogeita bederatzigarren xedapen gehigarrian, asilo-eskubidea eta errefuxiatu-izaera arautzen duen martxoaren 26ko 5/1984 Legean jasotako errefuxiatuaren definizioa aldatzen da, honako hau aipatzeko: “errefuxiatu-izaera beren jatorrizko herrialdeetatik ihes egiten duten emakume atzerritarrei aplikatuko zaie, genero-arrazoiengatik jazarpena jasateko beldur sendoak dituztelako”. Xedapen horrek atea irekitzen dio hala eskatzen duten emakumei eta neskatuei asilo-eskubidea aitortzeari, genitalen mutilazioaren biktima izateko arriskuari helduz, ACNURen gomendioei jarraituz. Izan ere, 2002. urtean egindako gomendio horiek generoagatiko errefuxiatu izaera aitortzeko eskaeretan genitalen mutilazioa sartzea gomendatu zuten.

---

<sup>25</sup> 1951ko Errefuxiatuen Estatuaren 1. eta 2. artikulua.

Jarraitzeko, erabaki horiek hartzeko eskumena duten organoak azaldu behar dira. Asiloari buruzko Espainiako administrazio-prozeduran, Asilo eta Babes Bulegoak eskumena du ebazpen-proposamenak instruitu eta Justizia eta Barne ministroari aurkezteko, eta, ondoren, ministro horrek du espedienteak ebazteko eskumena.

Asilo-eskubidea eta babes subsidiarioa arautzen dituen urriaren 30eko 12/2009 Legearen 23.1 artikulua ezartzen duenez, Barne Ministerioaren mendeko den Asilo eta Babes Bulegoa izango da asilo-eskaerak izapidetuko dituen organo eskuduna. Espainiako nazioarteko babes-sisteman, Nazioarteko Babeseko Zuzendariordetza Nagusia da (Barne Politikako Zuzendaritza Nagusiaren mendean) eginkizun hori bere gain hartzen duen organo espezializatua, eta nazioarteko babesaren arloko prozedurak bideratzeaz eta izapidetzeaz arduratzen dena.

Aipatutako legearen 17.2. artikuluan arautzen den babesa babes subsidiarioa esaten zaio. Babes subsidiarioa 2004ko apirilaren 29ko Kontseiluaren 2004/83/EB Zuzentarauak definitzen du. Zuzentaru horrek hirugarren herrialdeetako nazionalak edo aberrigabeak errefuxiatu gisa edo nazioarteko beste babes mota bat behar duten pertsona gisa aitortzeko eta estatutua lortzeko betekizunei eta emandako babesaren edukiari buruzko gutxieneko arauak ezartzen ditu<sup>26</sup>. V. kapituluaren barruan, babes subsidiarioa lortzeko baldintzak arautzean, 15.artikuluak b) atalak ezartzen du *kalte larritzat joko dela (...) jatorrizko herrialdean eskatzaile baten tortura edo zigor edo tratu anker edo apalesgarriak*. Torturaren edo zigor edo tratu anker edo apalesgarrien aurkako babes hori Giza Eskubideen Europako Hitzarmeneko 3. artikuluen bidez ere lor daiteke<sup>27</sup>, Giza Eskubideen Europako Auzitegian demanda jarrita, nahiz eta onargarritasun-baldintza gisa barne-baliabide guztiak agortu behar diren.

### **3. Emakumeen genitalen mutilazioa**

#### **3.1. Definizioa eta fenomenoak**

Azken urteotan, emakumeen genitalen mutilazioari (aurrerantzean EGM) buruzko eztabaidak zeresan handia eman du, bai praktikatzen den gizarteetan, bai biktimek asiloa bilatzen duten gizarteetan, non praktika hori neskatoen eta emakumeen eta haien eskubideen aurkako abusu

---

<sup>26</sup> 2004/83/EB Zuzentaruak, Kontseiluarena, 2004ko apirilaren 29koa, hirugarren herrialdeetako herritarrak edo errefuxiatu gisa edo bestelako babesa behar duten pertsonak aitortzeko eta estatutuan sartzeko betekizunei eta emandako babesaren edukiari buruzko gutxieneko arauak ezartzen dituena.

<sup>27</sup> Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmena, 1950eko azaroaren 4koa, Espainiak 1979ko irailaren 26an berretsia (1979ko urriaren 10eko BOE, 243. zk.).

gisa ikusten den. Bigarren egoera hori izango da atal honetan eztabaidatuko dugun puntua, zehazki, Europar Batasunaren mugen barruan emakumeen eta neskato horiek duten oztopoak eta babesa.

EGMren praxia genero desberdintasunak oso errotuta dauden komunitate eta familia patriarkalen adierazpen bat da, berezko dituzten hainbat faktore kultural, erlijioso eta sozialen nahasketan oinarritua. Praktika kaltegarri hori, desberdintasun horiengatik ez ezik, desberdintasun horiek iraunaraztea laguntzen du ere. Horretaz aparte, botere-egiturak mantentzen ditu generoan oinarritutako gizarte batean, non emakumeak eta haien “ohorea” gizonen objektu eta propietate gisa baloratzen diren<sup>28</sup>.

Hasteko, EGMren definizio zehatz bat ematea beharrezkoa ikusten dugu. Izan ere, gai horri buruz ideia orokor bat izan arren ez dakigu zehatz-mehatz EGMk barneratzen duen guztia. Lehenik eta behin, EGM emakumeen organo genitalak nahita aldatzea edo lesiatzea da, arrazoi tradizional, kultural edo erlijiosoengatik, justifikatzen dituen arrazoi medikorik egon gabe. Partziala edo osoa izan daiteke, eta bere formarik zorrotzena infibulazioa da<sup>29</sup>.

Osasunaren Munduko Erakundearen kalkuluen arabera, gaur egun, bizirik dauden 200 milioi neskek eta emakumeek baino gehiagok jaso dute EGMaren barruan jasotzen den praktikaren bat. Gainera, kalkulatu da urtero 3 milioi neskek haien genitalen mutilazioa jasateko arriskua dutela, eta horietako gehienek 15 urte bete aurretik jasaten dutela<sup>30</sup>. Praktika hori, batez ere Mendebaldeko, Ekialdeko eta Ipar-ekialdeko Afrikako eskualdeetan biltzen da, baita Ekialde Ertainean eta Asiako herrialde batzuetan ere, eta genero desberdinkeria du oinarri. Izan ere, UNICEFen (Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Nazioarteko Larrialdi Funtza, ingeleseko siglekin) adierazpenen arabera, “praktikatzen den gizarte guztietan, EGM generoan oinarritutako desberdintasunaren adierazpen bat da, egitura sozial, ekonomiko eta politikoetan sakon errotuta dagoena<sup>31</sup>”.

Migrazioen gorakadaren ondorioz, European, Australian eta Ipar Amerikan emakumeen genitalen mutilazioa jasan duten edo praktika hori jasateko arriskua izan dezaketen nesken eta

<sup>28</sup> Pečiūrienė, Jurgita. (2013). *Female genital mutilation in the European Union and Croatia*. Genero Berdintasunerako Europako Institutuaren txostena.

<sup>29</sup> Infibulazioa emakumeen genitalen mutilazio mota bat da. Baginako irekidura josturaren bidez estutzea da. Bertan, ezpainak moztu eta birkokatu egiten dira, eta soilik irekidura txiki bat uzten da gernua igortzeko eta hilekoaren odola deskargatzeko. Klitoriaren erauzketa (klitoridektomia) barne har dezake edo ez.

<sup>30</sup> Osasunaren Munduko Erakundea. (OMS, gaztelaniazko siglak). (2023). *Mutilación genital femenina*.

<sup>31</sup> UNICEF: “Female genital mutilation/cutting. A statistical exploration”. (UNICEF 2005:19).

emakumeen kopurua ere handitu, izan ere, praktika hau ez da lurralde jakin batera jada murrizten baizik eta migrazioari esker praktikatzen den lekuen kopuru handitu egin dela azken urteetan. Beraz, EGM mundu mailako kezkatzat jo daiteke.

### 3.2. Nazioarteko legeria

Praktika kulturala izateaz gain, lehen esan dugun bezala, EGM arazo globaltzat hartzen da nazioartean, UNICEFen arabera EGMren praktika jada ez baitago tradizionalki praktikatu den herrialdeetara mugatuta<sup>32</sup>.

Izan ere, migrazioa behin eta berriz errepikatzen da gure gizartean, gero eta globalizatuagoa dagoena, eta, beraz, migratzen dutenek haiekin batera eramaten dituzte beren ohiturak eta tradizioak nortasun-ikur gisa, adibidez, EGM<sup>33</sup>.

Argi utzi behar da EGM giza eskubideen printzipio eta arauen urraketa bat dela. Besteak beste, honako eskubide hauek urratzen ditu: berdintasunaren eta sexu-arrazoiengatikoko diskriminaziorik ezaren eskubidea; torturarik edo zigor edo tratu krudel, anker edo apalesgarririk ez jasateko eskubidea; ahalik eta osasun-maila gorenerako eskubidea; haurren eskubideak; osotasun fisiko eta mentalerako eskubidea; eta baita bizitzarako eskubidea ere barneratzen dituena.

Nazioarteko legerian oraindik ez dago EGMaren inguruko berezko nazioarteko hitzarmenik, hau da, fenomeno hori aztertu eta horren kontra borrokatzeko neurriak hartzen dituenik. Gai horren inguruan, ordea, eta giza eskubideen esparruan, nahitaez bete beharreko nazioarteko bi tresna daude, batez ere: Emakumearen aurkako Diskriminazio Mota Guztiak Ezabatzeko Konbentzioa (CEDAW, bere siglak ingelesez) eta Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa (CDN, bere siglak gaztelaniaz)<sup>34</sup>. Lehenengoak berariaz aipatzen du EGMren praktika, eta genero-harremanen desberdintasunaren testuinguruan kokatzen du. Bigarrenak, EGM bezalako praktika tradizionalei egiten die erreferentzia, kaltegarriak baitira eta osasun-maila altuena izateko eskubidea urratzen baitute. Bi konbentzioek estatu alderdiak animatzen dituzte neurriak har ditzaten, hurrenez hurren, praktika mota horrekiko onargarriak diren

---

<sup>32</sup> UNICEF. (2005). "Female genital mutilation/cutting. A statistical exploration". (UNICEF 2005:12).

<sup>33</sup> La Barbera, Maria Caterina. (2010). *Mujeres, migración y derecho penal: El trato jurídico de la "mutilación genital femenina"*.

<sup>34</sup> Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1989ko azaroaren 20an onartutako nazioarteko ituna da. Historian gehien berretsi den giza eskubideen ituna da, eta mundu osoko haur guztientzako oinarrizko eskubideak eta printzipioak ezartzen ditu.



genero-harremanak txertatzen diren eredu soziokulturalak aldatzeko, eta neskatoak era guztietako kalte edo abusetatik babesteko, haurra gurasoen zaintzapean edo eginkizun horretan bertan dagoen bitartean.

Aurreko paragrafoan aipatutako CEDAW esparruan, nahiz eta Hitzarmenean bertan aipamenik ez agertu, EGMrekin lotutako lehenengo Gomendio Orokorrak 14. eta 19. izan ziren. Alde batetik, 14. Gomendio Orokorra (1990ena CEDAWaren Batzordeak onartutakoa) emakumeen aurkako indarkeriari borrokatu ahal izateko hainbat orientabide azaltzen die estatuei; besteak beste, etxeko indarkeria, sexu-indarkeria, sexu-esplotaziorako pertsonen salerosketa, sexu-jazarpena, haurren eta behartuen ezkontza eta baita emakumeen genitalen mutilazioa ere<sup>35</sup>. Bestetik, 19. Gomendio Orokorrak (1992an onartutakoa), berriro ere, emakumearen aurkako indarkeria mota guztiak jorratzen ditu, etxeko indarkeria, sexu-indarkeria, pertsonen salerosketa, sexu-jazarpena, “kulturan oinarritutako indarkeria” (EGM, esaterako) eta beste genero-indarkeria mota batzuk barne<sup>36</sup>.

Gainera, 2012an, Nazio Batuen Batzar Nagusiak aho batez onartu zuen emakumeen genitalen mutilazioaren aurkako lehen Ebazpena, hain zuzen, 67/146 Ebazpena, eta hura desagerrarazteko munduko ahaleginak areagotzeko deia egin zuen. 2015ean, emakumeen genitalen mutilazioa Garapen Jasangarriko Helburuen 5.3 helburuan barne bildu zuten, eta bertan praktika kaltegarri guztiak horiek desagerrarazteko deia egiten da.

2014. urtean Europako Kontseiluak aurrera eramandako Istanbulgo Konbentzioa bezala ezagutzen dena onartu egin zen<sup>37</sup>, honek emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta horien aurka borrokatzeari buruzko tratatu bat da. Izan ere, genero indarkeriari bere forma guztietan heltzen dio, EGM barne eta emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko, biktimak babesteko eta erantzuleak jazartzeko neurri legal, politiko eta prebentiboak ezartzen ditu.

---

<sup>35</sup> 14. Gomendio Orokorra. Emakumeen zirkunzisia. Bederatzigarren bilkuraldia (1990). Emakumearen aurkako diskriminazioa ezabatzeko Batzordeak hartutako gomendio orokorrak.

<sup>36</sup> 19. Gomendio Orokorra. Emakumearen aurkako indarkeria. Hamaikagarren bilkuraldia (1992). Emakumearen aurkako diskriminazioa ezabatzeko Batzordeak hartutako gomendio orokorrak.

<sup>37</sup> Berreste-agiria, emakumearen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren aurkako prebentzioari eta borrokari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmenarena, Istanbulen egina 2011ko maiatzaren 11n. Espainian 2014ko ekainaren 6an berretsia.

### 3.3. Europar Batasuneko legeria

Europar Batasunak (EB) ere ez du emakumeen genitalen mutilazioari buruzko berariazko legeriarik, estatu kide guztietan uniformeki aplikatzen denik, baina, badauka zenbait tratatu esparru honi buruzko neurriak hartzen dituztenak, hala nola; CEDAW, CEDAWen Hautazko Protokoloa<sup>38</sup> eta Pertsonen Salerosketa Prebenitzeko, Zapaltzeko eta Zehatzeko Protokoloa<sup>39</sup>, bereziki Emakumeak eta Haurrak, Nazio Batuen Delinkuentzia Antolatu Transnazionalaren aurkako Konbentzioa<sup>40</sup> osatzen duena.

Tratatu eta Konbentzio hauetaz gain, EBk adierazpenak onartu ditu gai horri heltzeko, eta baita jarraibideak eman ditu estatu kideei non EGM prebenitzeko eta borrokatzeko neurriak hartzeko eskatzen dizkien. Adierazpen horien artean Europako Parlamentuak urteetan zehar eman dituen hainbat Ebazpen daukagu, hala nola 2001eko ekainaren 14an eman zuen emakumeen genitalen mutilazioei buruzko Ebazpena (2001/2035)<sup>41</sup>; 2009ko martxoaren 24ko Ebazpena, emakumeen genitalen mutilazioaren aurkako borrokari buruzkoa (2008/2071)<sup>42</sup>; 2012ko ekainaren 14koa, emakumeen genitalen mutilazioa desagerrarazteari buruzkoa (2012/2684)<sup>43</sup>; eta 2020ko otsailaren 12koa, munduan emakumeen genitalen mutilazioari amaiera emateko Batasunaren strategiari buruzkoa (2019/2988)<sup>44</sup>. Lau ebazpen horiek hainbat puntu dituzte komunean: lehenik eta behin, EGMren kondena, bere forma guztietan; bigarrenik, estatu kideen eta praktika horien jatorrizko herrialdeen arteko koordinazioaren eta lankidetzaren garrantzia goraipatu, arazori modu bateratuan aurre egin ahal izateko; hirugarrenik, EBkoak ez diren herrialdeetatik EGMtik ihes egiten duten emakume eta neskatuen babesa eta asilo-prozeduretarako sarbidea bermatzeko beharra ezarri EBren barruan; eta, batez ere, laugarrenik biktimak babestearen garrantzia nabarmentzen dute.

<sup>38</sup> Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1999an onartutako tresna osagarria da. Protokolo honen helburua CEDAWren irismena indartzea eta zabaltzea da, emakumeen eskubideen babesa bermatzeko mekanismo gehigarri bat eskainiz.

<sup>39</sup> 2000. urtean Nazio Batuen Batzar Nagusiak onartutako nazioarteko tresna da.

<sup>40</sup> Palermoko Konbentzioa ere esaten zaio, eta Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2000. urtean onartutako nazioarteko ituna da. Konbentzio horren helburu nagusia nazioz gairiko delinkuentzia antolatuari aurre egitea eta prebenitzea da, bere forma guztietan.

<sup>41</sup> Europako Parlamentuaren Ebazpena, 2001eko irailaren 20koa, emakumeen mutilazio genitalei buruzkoa (2001/2035 (INI)).

<sup>42</sup> Europako Parlamentuaren Ebazpena, 2009ko martxoaren 24koa, EBn egindako emakumeen genitalen mutilazioaren aurkako borrokari buruzkoa (2008/2071 (INI)).

<sup>43</sup> Europako Parlamentuaren Ebazpena, 2012ko ekainaren 14koa, emakumeen genitalen mutilazioa desagerrarazteari buruzkoa (2012/2684 (RSP)).

<sup>44</sup> Europako Parlamentuaren Ebazpena, 2020ko otsailaren 12koa, munduan emakumeen genitalen mutilazioari amaiera emateko Batasunaren strategiari buruzkoa (2019/2988 (RSP)). Nazioarteko emakumeen genitalen mutilazioa prebenitu eta horri aurre egin nahi dion proposamen garrantzitsua da. Ebazpen honek EGM desagerrarazteko estrategia integral baten beharra ezartzen du, besteak beste legegintza-, hezkuntza- eta osasun-neurriak barne hartuko dituena.

Europako Parlamentuak aurrera eramandako Ebazpenez aparte, askoz garrantzitsuago da (lotesle delako estatu kideentzat) Europako Parlamentuak eta Kontseiluak onartutako 2011/36/EB Zuzentaraua. Bertan, Europar Batasunak gizakien trafikoa prebenitzeko eta borrokatzeko arauak ezartzen ditu, eta EGMrekin lotutako xedapenak jasotzen ditu ere. Zuzentarau horrek neurriak ezartzen ditu salerosketa prebenitzeko, delitugileak detektatzeko eta jazartzeko, biktimak babesteko eta EBko estatu kideen arteko lankidetzeta eta koordinazioa sustatzeko, pertsonen, oro har, emakumeen salerosketaren aurkako borroka sustatzeko<sup>45</sup>. Zuzentaraua salerosketa-mota guztiei aplikatzen zaie, lan-esplotazioari, sexu-esplotazioari eta morrontza barne. Gainera, gutxieneko estandarrak ezartzen ditu biktimak babesteko, oinarritzko zerbitzuak eskuratzeko eta salerosketaren biktimak ez kriminalizatzeko neurriak barneratu egiten ditu ere. Zuzentaraua bat denez, estatuak horren transposizioa<sup>46</sup> egin behar izan zuten haien barne ordenamenduetan.

Bestalde, goian aipatutako EBak egindako adierazpen eta jarraibideen ondorioz estatu kideek bide desberdinak jarraitu egin dituzte: herrialde batzuek *ad hoc* zigor-legeak ezarri dituzte beren praktika debekatzeko eta zigortzeko (Erresuma Batua, Suedia); beste batzuek beren zigor-kodeak aldatu dituzte, delitu autonomo gisa sartuta (Belgika, Danimarka, Italia); eta azkenik beste batzuek berariaz ez tipifikatzea erabaki dute, uste baitute dagoeneko existitzen diren delitu batzuetan praktika hori ezin hobeto egokitzen dela, batez ere, lesio-delituetan eta balizko tipo larriagoetan, biktimak adingabeak direnean edo lesioak gurasoek edo tutoreek egiten dituztenean (Alemania, Finlandia, Frantzia, Grezia, Herbehereak, Irlanda, Luxenburgo, Portugal, etab.).

### **3.4. Espainiako Legeria**

Arestian komentatu dugun moduan, herrialde askok berariazko legeak eman dituzte EGMri heltzeko eta hura egiten dutenak zigortzeko. Lege horiek zigorrak eta zehapenak ezartzen dizkiete EGM egiten edo sustatzen dutenei, bai eta biktimak babesteko neurriak ere. Gainera, herrialde batzuetan sentsibilizazio- eta hezkuntza-programak ezarri dira praktika prebenitzeko eta genero-berdintasuna sustatzeko. Atal honetan Espainiako eredia aztertuko dugu.

---

<sup>45</sup> 2011/36/EB Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2011ko apirilaren 5koa, gizakien salerosketaren aurkako prebentzioari eta borrokari eta biktimen babesari buruzkoa, eta Kontseiluaren 2002/629/JAI erabakia ordeztzen duena.

<sup>46</sup> Estatu kideko agintariak barneko legegintza-, erregelamendu- eta administrazio-arauak egokitzea, kasuen arabera, zuzentarau batean ezarritako emaitzak lortzeko.

Nazioarteko esparruan, Espainiak hainbat itun eta hitzarmen berretsi ditu, EGM gaitzesten dutenak eta hura prebenitzeko eta jazartzeko neurriak ezartzen dituztenak. Tratatu horiek aurreko atalean aipatutako CEDAW, CEDAWen Hautazko Protokoloa<sup>47</sup> eta Pertsonen Salerosketa Prebenitzeko, Zapaltzeko eta Zehatzeko Protokoloa<sup>48</sup>, bereziki Emakumeak eta Haurrak, Nazio Batuen Delinkuentzia Antolatu Transnazionalaren aurkako Konbentzioa<sup>49</sup> osatzen dutenak dira. Itun horien bidez, Espainiak EGM prebenitzeko eta zigortzeko neurriak hartzeko ardura du, bai bere lurraldean, Espainiako herritarrek edo Espainian bizi ohi direnek parte hartzen duten kasuetan eta baita ere lurraldez kanpokotasun printzipioa aplikatuz nahiz eta atzerrian jardun Espainiako legeria aplikatzea, geroago azalduko duguna.

Nazioarteko araudian ezarritako irizpideei jarraituz, batez ere Europar Batasuneko, Espainiako legegileak zenbait lege-neurri espezifiko hartu ditu EGMrekin lotuta. Hasteko, Zigor Kodearen 149. artikuluan EGM lesio-delitutzat har zitekeen arren, 2003. urtera arte ez zen izan Herritarren Segurtasunaren, Etxeko Indarkeriaren eta Atzerritarren Gizarteratzearen arloko Neurri Zehatzei buruzko irailaren 29ko 11/2003 Lege Organikoan non EGM berariaz gehitu egin zen Zigor Kodean:

“1. Norbaitek beste bati eragiten badio, edozein bide edo prozedura erabiliz, organo edo kide nagusi bat edo zentzu bat galtzea edo alferrekoa izatea, ezintasuna, antzutasuna, deformazio larria edo gaixotasun somatiko edo psikiko larria, orduan, pertsona horri 6 urtetik 12 arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio.

2. Norbaitek beste bati genitalen mutilazioa eragiten badio, horren adierazpenetatik edozeinetan, orduan, horri sei urtetik 12 arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio. Biktima adingabea edo ezgaia bada, guraso-ahala, tutoretza, kuradoretza, zaintza edo harrera egikaritzeko desgaiakuntza bereziko zigorra aplikatuko da, 4 urtetik 10 artekoa, epaileak adingabearen edo ezgaiaren intereserako egokitzen jotzen badu.”

Era berean, 2004ko abenduaren 28an 1/2004 Lege Organikoa onartu egin zen, genero-indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzkoa, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak modu guztietan babestea helburu duena, EGM barne. Horrek

---

<sup>47</sup> Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1999an onartutako tresna osagarria da. Protokolo honen helburua CEDAWren irismena indartzea eta zabaltzea da, emakumeen eskubideen babesa bermatzeko mekanismo gehigarri bat eskainiz.

<sup>48</sup> 2000. urtean Nazio Batuen Batzar Nagusiak onartutako nazioarteko tresna da.

<sup>49</sup> Palermoko Konbentzioa ere esaten zaio, eta Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2000. urtean onartutako nazioarteko ituna da. Konbentzio horren helburu nagusia nazioz gaindiko delinkuentzia antolatuari aurre egitea eta prebenitzea da, bere forma guztietan.

biktimentzako prebentzio-, babes- eta laguntza-neurriak ezartzen ditu, baita erasotzaileentzako zigorrak ere.

Orain arte aipatutako legeak Espainiako herrialdearen mugen barruan egindako egintzei aplikatu egingo dira. Hala ere, horretaz gain badago printzipio bat lurraldez kanpokotasun-printzipioa deitzen dena gure gaiari aplikatu ahal duguna eta Espainiak bere legedian lantzen duena. Printzipio horri Estatu batek bere jurisdikzioa egikaritzeko eta bere legeak bere lurralde-mugetatik haratago aplikatzeko duen gaitasunari dagokio, hau da, bere lurraldetik kanpo gertatzen diren zenbait jokabide edo gertakariak arautzea. Printzipio hori ideia honetan oinarritzen da: estatuek ahalmena dute beren subiranotasuna erabiltzeko eta beren interes legitimoak babesteko, baita beren mugetatik haratago ere, beren lurraldearekin edo herritarrekin lotura edo lotura garrantzitsuak daudenean. EGMren aurkako borrokaren testuinguruan, estatu batzuek praktika horren lurraldez kanpoko jazarpena ahalbidetzen duten legeak aldarrikatu dituzte. Horrek esan nahi du estatu batek EGMan parte hartzen duten pertsonak prozesatu eta zigortu ditzakeela, baita EGM bere lurraldetik kanpo gertatzen bada ere, betiere kasuan kasuko estatuarekin lotura edo loturaren bat badago. Gure kasuan, Espainiak uztailaren 8ko 3/2005 Lege Organikoak, emakumeen mutilazio genitala lurraldez kanpo jazartzeko aukera ematen duena daukagu, honek zigorgabetasuna saihestu egiten du. Oso ohikoa den lege hori aplikatzeko adibide bat da familiek “familia-bisitarako arrazoiekin” jatorrizko herrialdera egindako bidaiak bat aprobetxatu egiten dutela neskei EGM praktikatzeko. Aipatu beharra dago lurraldez kanpokotasun-printzipioaren ildoari jarraituz, horren aplikazioak nazioarteko zuzenbidearekin bat etorri behar duela, eta beste estatu batzuen subiranotasunaren eta esku-sartzerik ezaren printzipioak errespetatu behar dituela. Izan ere, lurraldez kanpoko jurisdikzioa erabiltzen duten estatuek nazioarteko tratatuen, lege nazionalen eta aitortutako nazioarteko zuzenbidearen printzipioen arabera egin behar dutela.

Berriki, martxoaren 13ko 1/2014 Lege Organikoa onartu zen, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldatzen duena, justizia unibertsalari buruzkoa. Lege hori onartu ondoren, artikulua bakar batek osatzen duena, EGMri egiten zaion lege-aldaketa honela interpretatu behar da:

«4. Era berean, Espainiako jurisdikzioa eskuduna izango da espainiarrek edo atzerritarrek lurralde nazionaletik kanpo egindako egitatez arduratzeko, baldin eta, Espainiako legearen arabera, delitu hauek tipifika badaitezke, adierazitako baldintzak betetzen direnean:

L) Europako Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 11ko Hitzarmenean, emakumeen aurkako indarkeriaren eta etxeke indarkeriaren aurkako prebentzioari eta borrokari buruzkoan, araututako delituak, baldin eta:

- Prozedura espainiar baten aurkakoa bada.
- Prozedura Espainiako Estatuan bizi den atzerritar baten aurkakoa bada.
- Delituak egiteko unean espainiar nazionalitatea edo ohiko bizilekua Espainiako estatuan duen biktima baten aurka egin badira, betiere delitu-egitatea egozten zaion pertsona Espainian badago. [...]”.

Legeria horretatik abiatuta, zenbait lege onartu dira jada Autonomia-Erkidegoen esparruan, hala nola Euskal Autonomia Erkidegoan, non bi legeak osatzen dute emakumeen eta nesken babes espezifikoa delitu horren kontra; alde batetik, 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa eta beste aldetik, 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoa<sup>50</sup>.

#### **4. Asiloa eta emakumeen genitalen mutilazioa Espainian**

Asilo eta emakumeen genitalen mutilazioa Nazioarteko, Europako eta Espainiako esparruan aplikatzekoa den lege-esparrua aztertu ondoren, bakoitzak bere aldetik, orain ikusiko dugu nola interpretatu eta aplikatzen duten lege esparru hori emakumeen genitalen mutilazioarekin lotutako asilo-eskaerei.

Asilo-eskubidea argi dago nazioarteko zuzenbideak, Europako legediak eta Espainiako legeria nazionalak aitortutako oinarritzko eskubidea dela. Eskubide hori beren arraza, erlijioa, nazionalitatea, gizarte-taldea edo iritzi politikoa dela eta, beren jatorrizko herrialdean jazarriak izan diren edo jazarpenaren beldur oinarriduna duten pertsonen aplikatzen zaie.

Espainiako asilo-eskubidea Espainiako Konstituzioaren 13.4 artikuluan jasota dago. 1978an, Espainiak 1951ko Genevako Konbentzioa eta 1967ko New Yorkeko Protokoloa sinatu zituen. Konstituzio-aginduaren ondorioz, asilo-eskubidea eta errefuxiatu-izaera arautzen dituen

---

<sup>50</sup> Euskadiko osasun-sisteman gomendatutako jardueren gida. Lehenengo zatia: Esparru antropologikoa, etikoa eta juridikoa.

martxoaren 26ko 5/1984 Legea<sup>51</sup> onartu zen, eta maiatzaren 19ko 9/1994 Legeak<sup>52</sup> aldatu zuen arau hori. Ondoren, asilo-eskubidea eta babes subsidiarioa arautzen dituen urriaren 30eko 12/2009 Legea onartu zen, eta 2009ko azaroaren 20an jarri zen indarrean<sup>53</sup>, lege hori da jatorrizko herrialdean jazarpena jasan duten edo jazarpen-beldur oinarrituta duten pertsonak errefuxiatutzat hartzen dituen Espainiako legeria. Lege horrek esplizituki jasotzen du EGM genero-arrazoiengatik jazarpen-modu gisa. Asiloa eskatzeko eta Espainian errefuxiatu izateko prozedurak eta baldintzak ere ezartzen ditu 12/2009ko legeak. Ildo horretan, asilo-eskatzailleak bere nortasuna, nazionalitatea eta jazarpenaren beldur izateko arrazoiak egiaztatu behar ditu. EGMri dagokionez, asilo-eskatzailleak frogatu behar du praktika horren biktima izan dela, edo, jatorrizko herrialdera itzuliz gero, haren mende jartzeko beldur oinarrituta izan behar du.

Laburbilduz, Espainian aplikatzekoak diren nazioarteko legeriak eta itunek EGMren biktima izan diren pertsonak babesteko neurriak ezartzen dituzte, eta aukera ematen diete genero-arrazoiengatik asilo-eskatzaillei Espainian errefuxiatu izateko. Garrantzitsua da nabarmentzea Espainia neurri gehigarriak ezartzeko prozesuan dagoela, genero-indarkeria eta emakumeen aurkako beste indarkeria mota batzuk ikertzeari eta epaitzeari buruzko Istanbulgo Protokoloan (2011) oinarrituta<sup>54</sup>.

#### **4.1. Asilo prozeduraren azterketa**

Espainian, asiloa eskatzeko prozesua nazioarteko babes-eskaera bat aurkeztearekin hasten da. Eskaera horretan, eskatzailleak bere nortasuna, nazionalitatea eta jatorrizko herrialdean jazarpenaren beldur izateko arrazoiak egiaztatu behar ditu. Espainian nazioarteko babesaren eskaera aurkezteko gaitutako lekuak dira Asilo eta Babes Bulegoa; Espainiako lurraldean sartzeko muga-postuak, hau da, aireportuak, portuak eta lurreko mugak; Atzerritarren Barneratze Zentroak; Atzerritarren Bulegoak; eta Probintziako Polizia-Etxeak. Interesduna berandutu gabe agertu beharko da nazioarteko babes-eskaerara, eta, nolahi ere, gehienez

---

<sup>51</sup> 5/1984 Legea, martxoaren 26koa, Asilo-eskubidea eta errefuxiatu-izaera arautzen dituen. BOE, 74. zk., 1984ko martxoaren 27koa, 8389-8392. orrialdeak.

<sup>52</sup> 9/1994 Legea, maiatzaren 19koa, Asilo-eskubidea eta errefuxiatu-izaera arautzen dituen martxoaren 26ko 5/1984 Legea aldatzen duena. BOE 122. zk., 1994ko maiatzaren 23koa, 15796-15800. orrialdeak.

<sup>53</sup> 12/2009 Legea, urriaren 30ekoa, Asilo-eskubidea eta babes subsidiarioa arautzen dituen. BOE 263. zk., 2009ko urriaren 31koa, 90860-90884 orrialdeak.

<sup>54</sup> Espainiako Berdintasun Ministerioa. (2019). Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ordezkaritza. *La Mutilación Genital Femenina en España*.

hilabeteko epean, Espainiako lurraldean sartzen denetik edo jazarpenaren edo kalte larrien beldur oinarritua justifikatzen duten gertaerak gertatzen direnetik zenbatzen hasita<sup>55</sup>.

Eskaera aurkeztu ondoren, onartu edo ukatu egiten da izapidetzea, eta prozeduraren instrukzioa hasten da. Horren barruan sartzen da eskatzailearekin elkarrizketa bat egitea, haren kasuari buruzko informazio gehigarria jasotzeko eta asilo-eskaeraren arrazoiak egiaztatzen dituzten frogen eta dokumentuen balorazioa egiteko.

Azkenik, errefuxiatu-izaera emateko edo ukatzeko ebazpena ematen da, eta, emanez gero, errefuxiatua Espainian integratzea eta ongizatea bermatzeko beharrezkoak diren babes- eta gizarte-laguntzako neurriak ematen dira.

#### **4.2. Espainiako jurisprudentzia**

Prozedura aztertu ondoren, atal honetan Auzitegi Nazionalak eta Auzitegi Gorenak ebatzitako EGMen arloko epaien hautaketa aztertuko dugu, eta baita nola auzitegi horiek aplikatzen duten prozedura ere.

Hain zuzen ere, jarraian, bi epai aztertuko ditugu: lehenengoa zuzenean desestimatu zen, auzitegiaren aburuz demanda jartzailearen asilo-eskaera oinarritzeko arrazoi nahikorik ez zegoelako; eta bigarrena asilo-eskaera bat izapidetzeko ez onartzearen beste kasu bat da, non eskaera hori errekurritu egin zen, eta ACNURek jatorrizko herrialdeari buruzko informazioarekin egindako txosten bati esker eskaera onartu egin zen:

Lehenengoa, Auzitegi Nazionalak ezagututako asilo-eskaera ukatzeko kasu bat ikusten dugu, hain zuzen ere, 4408/2014 epaia. Epai horretan frogatutako egitateetan adierazten da demanda jartzailea Nigeriako familia oso pobre batekoa zela, eta aitari 65 urteko lagun batek eta bere hiru emaztek lagundu ziotela, eta aitak, jasotako laguntzaren truke, lagunarekin ezkontzea onartu zuela. Baina, beste hiru emazteen aurrean klitoria moztuko ziotela oharturik, ihes egin zuen, poliziarengana joanda, eta horrek laguntza ematea ukatu zion, familiako kontua zela adieraziz. Bere buruaz beste egitea pentsatu zuen, baina portuan gizon

---

<sup>55</sup> Navarro Gandullo, Lourdes, Alconada de los Santos, Mercedes y Rubio Razo, Mercedes. (2021). *Formación en Interculturalidad y Migraciones, Materiales formativos; Asilo y Protección Internacional. La situación de las personas refugiadas*. 2. zk, 34-39. orr.



batek lagundu egin zion eta Bilboraino joan zen itsasontzi batean sartuz. Han, komisariara joan egin zen.

Organo eskudunak, kasuaren balorazio zehatza egin ondoren, errefuxiatuaren estatutua eta babes subsidiarioa ematearen aurkako irizpidea eman zen, honako inguruabar hauek agerian utziz:

1) Eskatzaileak ez du bere nortasuna eta nazionalitatea egiaztatzen duen agiririk aurkeztu, eta bere alegazioetatik ez da ondorioztatzen dokumentaziorik eza justifikatzen duen arrazoirik.

2) Kontatutako gertaerek ez dute zerikusirik bere herrialdeko agintarien jazarpen batekin; izan ere, baliteke haiengana jo izana bere burua dokumentatzeko eta kontatzen dituen gertakarien aurrean babesa eskatzeko.

3) Alegatutako egitateak (ablazioa eta nahitaezko ezkontza) tipifikatuta eta zigortuta daude Nigeriako hainbat estatutan. Kaltetuak izan diren emakumeak Nigeriako iparraldeko edo hegoaldeko beste estatu batera joan daitezke, batez ere Lagosera.

4) Agente jazarlea interesdunaren herrialdeko agintariak ez direnez, eta herrialdeko zenbait eremutan bere eskaera oinarritzen duen gertaera debekatuta egonda, ez dago arrazoirik eskatzaileak eremu horietara joateko, horiek salatzea eta agintariei babesa eskatzea galarazteko. Gainera, ez da ezarri poliziari laguntza eskatzera benetan joan zenik.

5) Administrazioak, uste du bere aita eta senargaia hura bilatzeko eta Afrikako kontinenteko herrialderik populatuenean aurkitzeko moduan ez zeudela, 160 milioi pertsona ingururekin, eta, beraz, Nigeriako beste eremu batean finkatu zitekeela.

6) Interesdunaren bidaia ez da sinesgarria; izan ere, hamabost egun eman zituen itsasontzian polizoi moduan, itsasontzitik jaitsi eta Espainiako lurraldean sartu egin zen detektatuta izan gabe.

Adierazitako guztia argudiatu ostean, azkenik, Barne ministroaren ebazpenak ukatu egin zuen eskatutako asiloa eta babes subsidiarioa.

Erabaki hori berresteko, erabakia hartu zuen Administrazioak honako hau ezarri zuen Auzitegi Gorenaren 2009ko otsailaren 16ean 3. Salan: “(...) Gogoratu behar dugu, halaber, gure erabakiaren justifikazio gisa, Auzitegi Gorenaren sala eta sekzio honek 2009ko

urtarrilaren 2an emandako epaian (4251/2005 kasazio-errekurtsoa) adierazi duela apirilaren 29ko 83/2004 Europar Batasuneko Kontseiluak onartutako Zuzentarauak, 4.5 artikuluan, honako hau xedatzen duela”:

“Eskatzailearen deklarazioak dokumentu-frogek edo bestelako frogek bermatzen ez dituzten alderdiak aurkezten badituzte, alderdi horiek ez dira berretsi beharko honako baldintza hauek betetzen badira: a) eskatzaileak benetako ahalegina egin du bere eskaera oinarritzeko; b) eskatzaileak dituen elementu egoki guztiak aurkeztu dira, eta azalpen egokia eman da bestelako elementu egokirik ez egoteari dagokionez; c) eskatzailearen adierazpenak koherenteak eta sinesgarriak direla uste da, eta ez dute kontraesanean jartzen bere kasurako egokia den informazio espezifikorokorra; d) eskatzaileak ahalik eta azkarren aurkeztu du nazioarteko babeserako eskaera, salbu eta horrela ez aurkezteko arrazoi sendoak daudela frogatzen badu; e) eskatzailearen sinesgarritasun orokorra egiaztatu da”.

Ildo horretatik, Auzitegiak uste du kasu honetako auzi-jartzaileak alegatutako egitateak ez direla behar bezala egiaztatu, edo, behintzat, ez direla gai honetan kontuan hartu beharreko jurisprudenzia-doktrinak eskatzen duen nahikotasun-mailarekin egiaztatu.

“Beraz, errekurtsogileak ez du datu egiaztagarririk ematen babesa interesatzeko aipatzen duen jazarpenari buruz; beraz, froga-hutsune horrek eragozten du asiloari buruzko legerian babes daitekeen genero-arrazoiengatik jazarpena dagoela ondorioztatzea<sup>56</sup>”.

Bigarren prozedura, Auzitegi Gorenaren 3155/2006 epaia da. Bertan, auzi jartzaileari Espainian asiloa partzialki ukatu zitzaion Barne Ministerioaren 2004ko apirilaren 14ko Ebazpenen batean, non, errefuxiatu-izaera aitortzeko eskaera ezetsi zen, baina arrazoi humanitarioengatik Espainian jarraitzeko eskaera onartu zen, Asiloari buruzko Legearen 17.2 artikuluan xedatutakoaren arabera. Baina, honen aurka kasazio-errekurtso bat jarri zuen auzi-jartzaileak eta hau balioetsi egin zuten.

Asilo-eskaera kontakizun honetan oinarritu zen: auzi-jartzailea Nigeria hegoaldeko hiri batean bizi zen, Uselun izenekoa, eta bere herrian gizon musulman bat zegoen, berarekin ezkondu nahi zuena; familiakoa baino egoera ekonomiko lasaiagoa zuen pertsona horrek gurasoei laguntza ematen zien. Nahiz eta gizon horrekin ez ezkondu nahi, besteak beste, “bera baino askoz zaharragoa zelako”, baina, hala ere, aitik hura entregatzeko erabakia hartu zuen. Berrito ere, beste poligamia kasu baten aurrean gaude. Hain zuzen, eskaeran azaldu

---

<sup>56</sup> Auzitegi Nazionala: SAN 4408/2014, 2014ko azaroaren 13koa.

zuen moduan: “Bera aberatsa zen eta 20 urte inguruko bi emakume zituen”. Helburu horrekin, alde aurretik, emakumeen genitalen mutilazioa egin zitzaion. Ondoren, Benin City-ra ihes egitea lortu zuen, bertan bere senide bat bizi baitzen; Hortik, Togora eta Ghanara joan zen eta, ondoren, Espainiara. Ahizparekin harremanetan jarri ahal izan zenean, jakin zuen bere senargaia haren bila ibili zela hirian. Gaur egun Valentzian bizi da.

Estatuko Abokatutzak Administrazioaren erabaki horren aurka egin zuen, eta nabarmendu zuen, bere alegazioak egiaztatzen dituen dokumenturik ez egoteaz gain, auzi-jartzaileak aspalditik zekiela gurasoek adostuta zutela ezkontza, (eta, ondorioz, klitoriaren ablazioa egingo zitzaiola ezkontza egin aurretik), eta ez zuela egoera horren aurkako erreakziorik izan. Eta, gainera, ez zuen agintarien babesik eskatu, EGM debekatuta baitago Nigerian 2000. urtetik, Estatuak babestuko zuela aditzera emanaz.

Errekurritutako ebazpenaren oinarria, funtsean, honako hau adierazten du erabakia hartu zuen Administrazioak: eskatzaileak ez duela bere nortasuna egiaztatzen duen agiririk aurkeztu, espedientean gabezia hori behar bezala justifikatzen duen arrazoirik agertu gabe; kontakizuna sinesgaitza eta inkongruentea dela; eta, azkenik, eskatzaileak bere alegazioen alde aurkeztutako frogaelementuak alegatutako jazarpenaren kontakizunean gertaerak behar bezala ezarri ez dituela gertaerei buruzkoak dira, eta, beraz, ezin direla jazarpenaren frogatzat edo seinaleztat hartu. Ebazpenak ondorioztatzen duenez, eskatzaileak ez ditu legez ezarritako betebeharrak bete, eta horrela zaila dela eskabidea aztertzea.

Horren kontrako eskatzailearen kasazio-errekurtsoaren arrazoiak honako hauek izan ziren:

Lehenengo arrazoian, Asiloari buruzko Legearen 3.1 artikulua eta Genevako Konbentzioaren 1.A.2 artikulua urratu izana alegatzen du auzi-jartzaileak, eta errefuxiatutzat hartzeko legez eskatzen diren baldintzak betetzen direla argudiatzen du; izan ere, lesio fisiko eta psikikoa egon dira, hori baita Espainian arrazoi humanitarioengatik egoteko baimena oinarritzen duena. Beraz, lesio fisiko eta psikikoa (mutilazio genitala) eta behartutako ezkontza, genero-indarkeriatzat hartu behar dira errefuxiatu-izaera aitortzeko, eta ez bakarrik arrazoi humanitarioengatik egonaldia emateko.

Bigarren arrazoian, auzi-jartzaileak alegatzen du Asiloari buruzko Legearen 8. artikulua eta arlo horretan zantzu-froga nahikoa izateari buruzko jurisprudentzia urratu direla; izan ere, argudiatzen du bere kontakizuna guztiz sinesgarria dela, zehatza eta koherentea dela, jasan duen ablazio genitalaren egiaztapen medikoarekin lotuta dagoela, jatorrizko herrialdearen

testuinguruan (Nigeria) zein den, eta, beraz, uste duela nahikoa froga-zantzu aurkeztu dituela eskatutako asiloa emateko.

Auzitegi Gorenak, azkenean, kasazio-errekurtsoa onartu zuen, 2006ko urriaren 10eko beste Auzitegi Gorenaren Epaia bat (RC 6597/2003) aipatuz. Bertan, honako hau adierazi zuen Auzitegiak: “ACNURen irizpidea jasotzen dugu Nigerian genitalen mutilazioa edo ablazioa egiteari buruz, hau da, ‘txosten askok zalantzan jartzen dute Nigerian azkenean benetako babesa ematen dela genitalen mutilazioa saihesten saiatzen diren pertsonen’, nahiz eta estatu batzuetan debekatuta egon”.

Era berean, aztertzen ari garen epaiak ACNURen txosten bat aipatu zuen. Txosten horrek argi eta garbi adierazten du estatu batzuetan EGM debekatzeko arauak onartu badituzte ere, ezarritako zigorrak minimoak direla, eta “estatu horietako batzuetan debekua izan arren, erregularri egiten dela oraindik”. Gainera, txostenak argitzen du “ezkontzeari edo EGM jasateari uko egin dion emakume batek baliteke familiako kideek edo herrialdeko beste toki batean bere erkidegoko kideek erraz ez hartzea (...) familia uzteak gizarte-bazterketa eta bazterketa ekonomikoa dakarkielako nigeriar gehienei, eta bereziki emakumei (...)”.

Horrenbestez, eta aurreko guztia kontuan hartuta, Auzitegi Gorenak auzi-jartzailearen kasazio-errekurtsoa baietsi, eta aurreko epaia baliogabetu zuen, zuzenbidearen aurkakoa zelako. Beraz, asilo-eskubidea eman zitzaiola adierazi zuen<sup>57</sup>.

Kritika gisa, azpimarratu behar dugu, aurreko jurisprudentzia aztertu ondoren, nabarmentzen da genero-arrazoiengatik jazartitak izan diren emakumeak errefuxiatu gisa aitortuak izateko oztopo askoei aurre egin behar dietela, bereziki, arrazoia emakumeen genitalen mutilazioa denean.

Arazo nagusia da emakumei egindako kaltea (kasu honetan, emakumeen genitalen mutilazioa), kasu askotan, ez dela jazarpenzat hartzen, edota, saihestu ahal zela pentsatu egiten dutela kasu horiek aztertu dutenek. Horrelako kalteak normalean eremu pribatu batean sortu egiten dira; izan ere, normalean, emakumeak jazarri egiten ditu estatukoa ez den agente batek (hau da, senarra, familia eta/edo auzokide batek), beraz ez dago normalean frogarik edo lekukorik hori egiaztatzeko.

---

<sup>57</sup> Auzitegi Gorena: STS 3155/2006, 2009ko maiatzaren 11koa.

Gainera, prozesuaren puntu garrantzitsuenetako bat frogak dira, baina arazo da horrelako egoera batean, oro har, emakumeak froga zehatzak ez dituela eta, beraz, eskaera ukatu egiten dela. Baina, gehien kezkatu behar diguna bi kasuetan eskatzailearen kontakizuna ez dela nahikoa izan, hau da, oro har, pertsona batek bere herrialdetik ihes egin behar izana, bere osotasun fisikoa arriskuan zegoelako, ez da nahikoa izan epaile batek Espainian asilo-eskubidea aitortu diezaien. Adibidez, aztertutako bigarren epaian ACNUReko txosten bat beharrezkoa izan da eskatzailearen egoera berresteko, hau da, emakumearen kontaketa ez da nahikoa izan bere eskaera balioetsi ahal izateko.

## 5. Ondorioak

Argi dago EGM emakumeen eta nesken aurkako indarkeria-mota larria dela, eta giza-komunitate askok oraindik defendatzen duten arren, nazioartean giza eskubideen urraketatzat hartzen dela. Osasun fisiko, sexual eta psikologikoan eragindako kalteak atzeraezinak dira. Gainera, praktika hori giza-komunitateak emakumeen gainean gauzatu egiten duten kontrol bat da, tradizioaren sinbologiaren arrazoian ezkutatuz<sup>58</sup>.

Nazioarteko zuzenbidea eta haren garapena izan da praktika hori desagerrarazteko bidean atal garrantzitsu bat. Horregatik, gaur egun, lege-tresna ugari ditugu, EGMren debekua bilakaera handia izatea ahalbidetu dutenak. Tresna horien artean, 1951ko Genevako Konbentzioa nabarmentzen dugu, Errefuxiatuen Estatutuaren Konbentzio gisa ezagutzen duguna. Bertan, errefuxiatuaren kontzeptua aurki dezakegu, edo Europar Batasuneko esparruan, Kontseiluaren 2011/95/EE Zuzentaraua, hirugarren herrialdeetako herritarrak edo aberrigabeak nazioarteko babesaren onuradun gisa aitortzeko baldintzei buruzko arauak ezartzen dituen, baita errefuxiatuentzako estatutu uniformeari buruzko edo babes subsidiarioari buruzko arauak ere.

Errefuxiatuaren kontzeptua aztertzen dugunean, deigarria izan daiteke emakumeen genitalen mutilazioa edo generoa ez izatea 1951ko Genevako Konbentzioan jasotako jazarpen-arrazoi bat; aitzitik, gehienetan, gizarte-talde jakin bateko kide izateak eragindako jazarpen-kausa bat moduan barneratu egiten da. Lanaren zehar aztertu duguna kontuan hartuz, eta batez ere, legea kasu praktikoetara nola aplikatzen den behin aztertuta esan dezakegu beharrezkoa dela genero-arrazoiengatik jazarpena sartzea Genevako Konbentzioan aurreikusitako beste

---

<sup>58</sup> Godinho Marques, Marta. (2014). *La mutilación genital femenina y derecho de asilo*. Trabajo de Fin de Grado, Universidad de Barcelona.

bosten maila berean. Izan ere, emakumeen esperientziei izena jarri behar zaiela uste dugu, egoera bati izena jartzea zuzenbidearen aldetik baliozkotasun bat ematen diolako eta emakume hauek bere istorioa kontatzeko aukera izango dute zuzenbidearen babes guztiarekin.

Jakina da, EGM egiteak estatu bakoitzak duen subiranotasuna gainditzen duela, eta, horren ondorioz, estatu horiek batera borrokatu behar dutela, praktika hori zigortuko duten eta emakumearen eskubideak errespetatuko direla bermatuko duten neurri eraginkorrak lantzeko. Hala ere, askotan, araudiaren eta EGMren praktikaren arteko aldea hain handia da, oso zaila bihurtzen dela hura desagerraraztea.

Beraz, gaiarekin zer ikusia duen legeria guztia aztertu ondoren, esan dezakegu arazoa ez dagoela nazioarteko lege edo organismoetan, baizik eta lege horiek estatu kideen barruan interpretatzeko eta aplikatzeko moduan. Genevako Konbentzioan aurreikusitako arrazoi bakoitza genero-ikuspegitik interpretatzeak lagundu egin dezake legearen eta praktikaren arteko alde hori desagertzen; izan ere, eraginkortasun handiagoz aplikatu ziren legeak, eta, beraz, emaitza hobekia lortuko lituzke babesa bilatzen duten emakumeak babesteko orduan. Gainera, asilo-eskaerak ebaluatzean genero-ikuspegia kontuan hartzean, emakume horiek mehatxu espezifikoari aurre egiteko egoerak hobeto identifika daitezke, eta haien eskubideak eta segurtasuna babesteko neurri egokiagoak hartu ahal izango dira. Era berean, asilo-prozesuan genero-ikuspegia txertatzeak asiloarekin lotutako politikak eta praktikak inklusiboak eta bidezkoak izatea bermatzea lagunduko luke, atzerriko herrialde batean babesa bilatzen duten pertsona guztientzat.

Genero-ikuspegiaren gaia jarraituz, prozedura-gaietan ere kontuan hartu beharko da, hala nola emakumezko langileak elkarrizketak egitea, emakumezko interpreteak egotea, bakarka elkarrizketatzea ahaide maskulinoekin badatoz, beren jatorrizko herrialdeetako giza eskubideen errespetuari eta emakumeen egoerari buruzko informazioa izatea, eta kontuan hartzea mutilatua izan den emakume batek estres psikologikoa jasan dezakeela, eta beraz asiloari buruzko legerian aurreikusitako epeen barruan asiloa eskatzea eragotzi dezakeela egoera horrek<sup>59</sup>.

---

<sup>59</sup> Mugako postuetan egindako asilo-eskaerak berehala egin behar dira, eta lurraldearen barruan asilo-eskaerak hilabeteko epean, lurralde nazionalean sartzen denetik zenbatzen hasita, salbu eta atzerritarrak aipatutako legezko egonaldia baino luzeagoa duen kasuetan, kasu horretan hura amaitu baino lehen aurkeztu ahal izango baita. Hala ezartzen du maiatzaren 19ko 9/1994 Legearen 7. artikulua, otsailaren 10eko 2003/1995 aldatu zuena.

Aurreko atalean aztertutako jurisprudenzia kontuan hartuta, asilo-eskaerak askok erantzun desberdina izango zutela genero-ikuspegitik begiratuta, adibide gisa, auzitegiak adierazten dutenean froga nahikorik ez daudela eta emakume baten testigantza nahikoa ez dela. Aldiz, lekukotza hori dagoeneko egoera horretatik pasatu den emakume batek edo esparru horretan aditua den emakume batek aztertuko balu, ziur aski ez luke legeetan ezartzen den adina froga beharko lekukotza hori benetako den erabakitzeko, eta, beraz, prozesua askoz “errazagoa” izango litzateke babes eskatzaileentzat. Horregatik, guztiagatik, uste dugu ikerketa-lan handiagoa egin beharko litzatekeela kasu horietan, eta eskatzailearen egoera ulertzen eta horretan arreta jartzen saiatu beharko litzatekeela. Gainera, malguagoak izan beharko luketela asiloa edo babes subsidiarioa onartzerakoan.

Legearen hitzez hitzeko edukiarekin batera, benetan garrantzitsua da eragile juridiko guztiek genero-desberdintasunekiko sentiberatasunez interpretatzeko borondatea izatea. Horretarako, beharrezkoa da legeei ematen diegun interpretazio desegitea eta ikuspegi berri batetik berreraikitzea, genero-ikuspegitik hain zuzen ere.

## 6. Bibliografía

### 6.1. Doktrina

- Bertone, Macarena. (2021). *La mutilación genital femenina y la condición de refugiada: un enfoque desde los derechos humanos*. Revista del Colegio de Abogados y Procuradores de la Primera Circunscripción Judicial – Mendoza. Berreskuratua: <http://mendozalegal.com/omeka/files/original/f343cce56670ebce594cce66e9c6cd64.pdf>
- Escribano Gámir, María Cristina. (2020). *Estudios sobre mujeres y feminismo Aspectos jurídicos, políticos, filosóficos e históricos*. Comisión Mujer y Ciencia de la Facultad de Ciencias Jurídicas y Sociales de Toledo. UCLM, 32. zk., 63-84. orr. Berreskuratua: <https://ruidera.uclm.es/xmlui/bitstream/handle/10578/28738/05%20ESTUDIO%20SOBRE%20MUJERES%20Y%20FEMINISMO-WEB.pdf?sequence=1&isAllowed=y>
- Fernandez Rozas, José Carlos. (2021). *Mejoras en el funcionamiento del Sistema Europeo Común de Asilo y transformación de la Oficina Europea de Apoyo al Asilo en una Agencia de pleno derecho*. Berreskuratua: <https://fernandezrozas.com/2021/12/30/mejoras-en-el-funcionamiento-del-sistema-europeo-comun-de-asilo-y-transformacion-de-la-oficina-europea-de-apoyo-al-asilo-en-una-agencia-de-pleno-derecho-30-diciembre-2021/>
- Grande-Gascón, María-Luisa; Ruiz-Seisdedos, Susana y Hernández-Padilla, María. (2013). “*El abordaje social y político de la mutilación genital femenina*”. *Portularia*, 13(1). zk., 11-18. orr. Berreskuratua: <https://www.redalyc.org/pdf/1610/161026336012.pdf>
- Kaplan Marcusán, Adriana; Salas Seoane, Nora eta Mangas Llompart, Aina. (2015). *La mutilación genital femenina en España*. Delegación del Gobierno para la Violencia de Género (Observatorio de la infancia). Berreskuratua: [https://www.observatoriodelainfancia.es/ficherosoia/documentos/4857\\_d\\_MGF\\_definitivo.pdf](https://www.observatoriodelainfancia.es/ficherosoia/documentos/4857_d_MGF_definitivo.pdf)
- La Barbera, Maria Caterina. (2010). *Mujeres, migración y derecho penal: El trato jurídico de la “mutilación genital femenina”*. Berreskuratua: [https://digital.csic.es/bitstream/10261/258399/1/La%20Barbera\\_Sortuz\\_2010.pdf](https://digital.csic.es/bitstream/10261/258399/1/La%20Barbera_Sortuz_2010.pdf)
- Linde Paniagua, Enrique. (2002). *Sistema de distribución de competencias y racionalización del sistema normativo*. *Revista de derecho de la Unión Europea*, 3. zk, 260-270. orr.



- Lucas, Bénédicte. (2007). *La ablación genital femenina: Una práctica inaceptable desde la perspectiva de los derechos humanos. Balance de la situación y recomendaciones para su erradicación* (J. Daniel Oliva Martínez, Ed.). Universidad Carlos III de Madrid, Madrid. Berreskuratua: <http://www.dhdi.free.fr/recherches/droithomme/memoires/lucasmemoire.pdf>
- Mangas Martín, Araceli. (2008). *La distribución de competencias en la Unión Europea y el principio de subsidiariedad*. Berreskuratua: [https://eprints.ucm.es/id/eprint/30336/1/Fund%20Gim%20Abad%202008%20competencias\\_mangas\\_martin\\_a\\_es\\_o.pdf](https://eprints.ucm.es/id/eprint/30336/1/Fund%20Gim%20Abad%202008%20competencias_mangas_martin_a_es_o.pdf)
- Mariño Menendez, Fernando.M. (2012). *El Derecho Internacional y europeo y la protección de los refugiados, Tratado de Extranjería*. En: PALOMAR OLMEDA, Alberto (coord.). *Grandes Tratados: Tratado de Extranjería*. 5. ed. Pamplona: Aranzadi.
- Miguel Juan, Carmen. (2008). *La mutilación genital femenina, derecho de asilo en España y otras formas de protección internacional*. Berreskuratua: [https://www.uv.es/CEFD/17/carmen\\_miguel.pdf](https://www.uv.es/CEFD/17/carmen_miguel.pdf)
- Miguel Juan, Carmen. (2016). *Una mirada feminista al derecho internacional*. Catarata, Madrid.
- Navarro Gandullo, Lourdes, Alconada de los Santos, Mercedes y Rubio Razo, Mercedes. (2021). *Formación en Interculturalidad y Migraciones, Materiales formativos; Asilo y Protección Internacional. La situación de las personas refugiadas*. 2. zk., 34-39. orr. Berreskuratua: [https://www.juntadeandalucia.es/export/drupaljda/asilo\\_proteccion\\_internacional.pdf](https://www.juntadeandalucia.es/export/drupaljda/asilo_proteccion_internacional.pdf)
- Novak-Irons, Fadela. (2015). *Mutilación genital femenina: un caso de asilo en Europa*, RMF 49.zk., 77-79.orr. Berreskuratua: [https://rua.ua.es/dspace/bitstream/10045/47655/1/RMF\\_49\\_38.pdf](https://rua.ua.es/dspace/bitstream/10045/47655/1/RMF_49_38.pdf)
- Pérez Barahona, Sergio. (2003). *El estatuto de "refugiado" en la Convención de Ginebra de 1951*. Revista Electrónica de Derecho de la Universidad De La Rioja (REDUR), 1. zk., 229-232. orr. Berreskuratua: <https://publicaciones.unirioja.es/ojs/index.php/redur/article/view/3840/3138>
- Pérez Villalobos, María Concepción. (2017). *La crisis de los refugiados y el derecho de asilo en la Unión Europea*, 35(1). zk., 7-16. orr. Berreskuratua: <https://revistas.um.es/analesderecho/article/view/289301>
- Pečiūrienė, Jurgita. (2013). *Female genital mutilation in the European Union and Croatia*. Informe del Instituto Europeo para la Igualdad de Género. Berreskuratua.

<https://op.europa.eu/en/publication-detail/-/publication/c0f519b6-1aed-4178-9c09-ce6e77caf926/language-en>

Porrás Ramírez, Jose Maria. (2017). *El sistema europeo común de asilo y la crisis de los refugiados. Un nuevo desafío de la globalización*. Revista de Estudios Políticos, 175. zk., 207-234. orr. Berreskuratua: [https://catedras.ugr.es/jeanmonnet-migraciones/sites/webugr/cmigra/public/inline-files/publicaciones/Sistema\\_europeo\\_comun\\_de\\_asilo\\_y\\_la\\_crisis\\_de\\_los\\_refugiados.pdf](https://catedras.ugr.es/jeanmonnet-migraciones/sites/webugr/cmigra/public/inline-files/publicaciones/Sistema_europeo_comun_de_asilo_y_la_crisis_de_los_refugiados.pdf)

Sánchez Sánchez, Zulima. (2017). *Un Sistema Europeo Común de Asilo: ¿Desdibujando la competencia de los estados?*. Revista Española de Derecho Europeo, 64. zk., 77-112. orr. Berreskuratua: [http://www.revistasmarcialpons.es/revistaespanoladerechoeuropeo/article/view/un\\_sistema\\_europeo\\_comun\\_de\\_asilo/113](http://www.revistasmarcialpons.es/revistaespanoladerechoeuropeo/article/view/un_sistema_europeo_comun_de_asilo/113)

Sanz Mulas, Nieves. (2014). *Diversidad cultural y política criminal, Estrategias para la lucha contra la mutilación genital femenina en Europa (especial referencia al caso español)*. Berreskuratua: <http://criminet.ugr.es/recpc/16/recpc16-11.pdf>

Scozzaro, Andrea. (2018). *Derecho de asilo en España*. Berreskuratua: [https://andreascuzzaro.com/derecho\\_de\\_asilo\\_en\\_Espana.html](https://andreascuzzaro.com/derecho_de_asilo_en_Espana.html)

Valero Heredia, Ana. (2007). *Derecho de asilo y mutilación femenina*. Universidad de Castilla- La Mancha. Cuadernos de Derecho Público, 30 zk., 79-93. orr. Berreskuratua: <https://revistasonline.inap.es/index.php/CDP/article/view/803/858>

## 6.2. Nazioarteko arau konbentzionalak eta instituzionalak

CEDAWaren Batzordea, 14. Gomendio Orokorra. *Emakumeen zirkunzisia*. Bederatzigarren bilkuraldia (1990). Emakumearen aurkako diskriminazioa ezabatzeko Batzordeak hartutako Gomendio Orokorra. Berreskuratua: [https://tbinternet.ohchr.org/Treaties/CEDAW/Shared%20Documents/1\\_Global/INT\\_CEDAW\\_GEC\\_3729\\_S.pdf](https://tbinternet.ohchr.org/Treaties/CEDAW/Shared%20Documents/1_Global/INT_CEDAW_GEC_3729_S.pdf)

CEDAWaren Batzordea, 19. Gomendio orokorra. *Emakumearen aurkako indarkeria*. Hamaikagarren bilkuraldia (1992). Emakumearen aurkako diskriminazioa ezabatzeko Batzordeak hartutako Gomendio Orokorra. Berreskuratua: [https://tbinternet.ohchr.org/Treaties/CEDAW/Shared%20Documents/1\\_Global/INT\\_CEDAW\\_GEC\\_3731\\_S.pdf](https://tbinternet.ohchr.org/Treaties/CEDAW/Shared%20Documents/1_Global/INT_CEDAW_GEC_3731_S.pdf)

Emakumearen aurkako diskriminazio mota guztiak ezabatzeari buruzko Konbentzioa (1979).

Berreskuratua:

<https://www.ohchr.org/es/instruments-mechanisms/instruments/convention-elimination-all-forms-discrimination-against-women>

Errefuxiatuen Estatutua (1951). Berreskuratua:

<https://www.refworld.org.es/docid/47160e532.html>

Europar Batasuneko Kontseiluarena, 2004/83/EB Zuzentaraua. *Hirugarren herrialdeetako nazionalak edo errefuxiatu gisa harrapatutakoak edo nazioarteko beste babes mota bat behar duten pertsonak aitortzeko eta estatutuan sartzeko betekizunei eta emandako babesaren edukiari buruzko gutxieneko arauak ezartzen dituen*. 2004ko apirilaren 29koa. Berreskuratua:

<https://www.boe.es/doue/2004/304/L00012-00023.pdf>

Europako Kontseiluaren Hitzarmenarena, Berreste-agiria. emakumearen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren aurkako prebentzioari eta borrokari buruzkoa. 2011ko maiatzaren 11koa. Berreskuratua:

[https://www.boe.es/diario\\_boe/txt.php?id=BOE-A-2014-5947](https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2014-5947)

Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2021/2303 (EB) Erregelamendua. 2021eko abenduaren 15koa. Berreskuratua:

[https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=uriserv%3AOJ.L\\_2021.468.01.0001.01.SPA&toc=OJ%3AL%3A2021%3A468%3ATOC](https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=uriserv%3AOJ.L_2021.468.01.0001.01.SPA&toc=OJ%3AL%3A2021%3A468%3ATOC)

Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 604/2013 (EB) Erregelamendua. 2013ko ekainaren 26koa. Berreskuratua:

<https://eur-lex.europa.eu/ES/legal-content/summary/eu-asylum-policy-eu-country-responsible-for-examining-applications.html>

Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2013/32/EB Zuzentaraua. 2013ko ekainaren 26koa. *Nazioarteko babesa emateko edo kentzeko prozedura komunei buruzkoa.*

Berreskuratua: <https://www.acnur.org/fileadmin/Documentos/BDL/2013/9260.pdf>

Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2013/33/EB Zuzentaraua. *Nazioarteko babesa eskatzen dutenei harrera egiteko arauak onartzen dituen*. 2013ko ekainaren 26koa. Berreskuratua: <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=DOUE-L-2013-81290>

Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2011/36/EB Zuzentaraua. *Gizakien salerosketaren aurkako prebentzioari eta borrokari eta biktimen babesari buruzkoa.* 2011ko apirilaren 5koa. Berreskuratua:

<https://www.boe.es/doue/2011/101/L00001-00011.pdf>

Europako Parlamentuarena, (2019/2988 (RSP)) Ebazpena. *Munduan emakumeen genitalen mutilazioari amaiera emateko Batasunaren estrategiari buruzkoa*. 2020ko otsailaren 12koa. Berreskuratua:

[https://www.europarl.europa.eu/doceo/document/TA-9-2020-0031\\_ES.html](https://www.europarl.europa.eu/doceo/document/TA-9-2020-0031_ES.html)

Europako Parlamentuarena, (2012/2684 (RSP)) Ebazpena. *Emakumeen genitalen mutilazioa desagerrarazteari buruzkoa*. 2012ko ekainaren 14koa. Berreskuratua:

[https://www.europarl.europa.eu/doceo/document/TA-7-2012-0261\\_ES.html](https://www.europarl.europa.eu/doceo/document/TA-7-2012-0261_ES.html)

Europako Parlamentuarena, (2008/2071 (INI)) Ebazpena. *EBn egindako emakumeen genitalen mutilazioaren aurkako borrokari buruzkoa*. 2009ko martxoaren 24koa. Berreskuratua:

[https://www.europarl.europa.eu/doceo/document/TA-6-2009-0161\\_ES.html](https://www.europarl.europa.eu/doceo/document/TA-6-2009-0161_ES.html)

Europako Parlamentuarena, (2001/2035 (INI)) Ebazpena. *Emakumeen mutilazio genitalei buruzko*. 2001eko irailaren 20koa. Berreskratua:

<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/ALL/?uri=CELEX:52001IP0285>

Kontseilu Europarra, Stockholmeko Programa. *Europa irekia eta segurua, herritarra zerbitzatu eta babestuko duena*. 2010eko maiatzaren 4a. Berreskuratua:

<https://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:C:2010:115:0001:0038:es:PDF>

### 6.3. Bestelako dokumentuak

ACCEM. (2023). *El asilo en España*. Berreskuratuta:

<https://www.accem.es/refugiados/el-asilo-en-espana/>

ACNUR. (2009). *Guías sobre las solicitudes de asilo relativas a la mutilación genital femenina*. Sección de Políticas de Protección y de Asesoramiento Jurídico División de Servicios de Protección Internacional, Geneva. Berreskuratua:

<https://www.acnur.org/fileadmin/Documentos/BDL/2009/7139.pdf>

ACNUR. (2013). *Mutilación genital femenina y asilo en la Union Europea*. Berreskuratua:

<https://www.acnur.org/fileadmin/Documentos/Publicaciones/2014/9458.pdf>

ACNUR. (2012). *La persecución por motivos de género y el asilo*. Berreskuratua:

<https://www.acnur.org/fileadmin/Documentos/archivo/4206.pdf>

Amnistía Internacionala. (1998). *La mutilación genital femenina y los derechos humanos. Infibulación, excisión y otras prácticas cruentas de iniciación*. Madrid, España:

EDAIM. Berreskuratua: <https://www.corteidh.or.cr/tablas/12056.pdf>

- CEAR Euskadi. (2009). *Espainiako asilo-sistema, emakumeen eta lesbianen, gayen bisexualen eta transexualen giza eskubideen urraketari dagokionez*. Bilbao.
- CEAR Madrid. (2017). *Hacia dónde va el nuevo sistema europeo común de asilo: Retos, amenazas y propuestas*. Berreskuratua: <https://www.cear.es/wp-content/uploads/2017/03/INFORME-SECA.pdf>
- De arriba Gonzalez, Yessica. (2010). *Mutilación genital femenina. Una forma de violencia contra la mujer socialmente aceptada*. Trabajo de Fin de Máster, Universidad de Salamanca. Berreskuratua: [https://gredos.usal.es/bitstream/handle/10366/80244/TFM\\_EstudiosInterdisciplinarios\\_Genero\\_ArribaGonzalez\\_Y.pdf;jsessionid=69B81EA5271FBE414F19371814BB7DB2?sequence=1](https://gredos.usal.es/bitstream/handle/10366/80244/TFM_EstudiosInterdisciplinarios_Genero_ArribaGonzalez_Y.pdf;jsessionid=69B81EA5271FBE414F19371814BB7DB2?sequence=1)
- Espainiako Berdintasun Ministerioa. (2019). Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ordezkaritza. *La Mutilación Genital Femenina en España*. Berreskuratua: [https://violenciagenero.igualdad.gob.es/violenciaEnCifras/estudios/investigaciones/2020/pdfs/Estudio\\_MGF.pdf](https://violenciagenero.igualdad.gob.es/violenciaEnCifras/estudios/investigaciones/2020/pdfs/Estudio_MGF.pdf)
- Europar Batasunari, Europako Parlamentuari eta asilo-politikari buruzko fitxa tematikoak. Berreskuratua: <https://www.europarl.europa.eu/factsheets/es/sheet/151/la-politica-de-asilo>
- Euskadiko osasun-sisteman gomendatutako jardueren gida. Berreskuratua: [https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/mutilacion\\_genital\\_femenina/es\\_def/adjuntos/1-marco-antropologico-etico-juridico.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/mutilacion_genital_femenina/es_def/adjuntos/1-marco-antropologico-etico-juridico.pdf)
- Godinho Marques, Marta. (2014). *La mutilación genital femenina y derecho de asilo*. Trabajo de Fin de Grado, Universidad de Barcelona. Berreskuratua: [http://diposit.ub.edu/dspace/bitstream/2445/130743/1/TFM\\_Godinho%20Marques\\_Marta.pdf](http://diposit.ub.edu/dspace/bitstream/2445/130743/1/TFM_Godinho%20Marques_Marta.pdf)
- Lazaro Lorca, María. (2019). *Mujeres refugiadas en España*. Trabajo de Fin de Grado, Universidad Pontificia de Comillas. Berreskuratua: <https://repositorio.comillas.edu/rest/bitstreams/274546/retrieve>
- Organización Mundial de la Salud (OMS) (2023). *Mutilación genital femenina*. Berreskuratua: [https://www.who.int/es/health-topics/female-genital-mutilation#tab=tab\\_1](https://www.who.int/es/health-topics/female-genital-mutilation#tab=tab_1)
- Suarez Rodriguez, Paloma. (2021). *La mutilación genital femenina y el derecho de asilo*. Trabajo Fin de Grado, Universidad de Huelva. Berreskuratua: [http://www.derechohuelva.com/images/TFG\\_FINAL\\_firmado.pdf](http://www.derechohuelva.com/images/TFG_FINAL_firmado.pdf)

UNICEF. (2005). *Female genital mutilation/cutting. A statistical exploration*. Berreskuratua: <https://data.unicef.org/resources/female-genital-mutilationcutting-a-statistical-exploration/>

UNICEF. (2020). *Mutilación genital femenina. La mutilación genital femenina constituye una violación de los derechos humanos reconocida internacionalmente*. Berreskuratua: <https://www.unicef.org/es/proteccion/mutilacion-genital-femenina>

Zubiaga Moreno, Ane. (2022). *La mutilación genital femenina y su relacion con diferentes normativas internacionales*. Trabajo de Fin de Grado, Universidad del País Vasco. Berreskuratua: [https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/58872/TFG\\_Zubiaga\\_Moreno\\_Ane.pdf?sequence=1](https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/58872/TFG_Zubiaga_Moreno_Ane.pdf?sequence=1)